Sin./Fdo.: ENERITZ LARRAKOETXEA ALTZAGA - 2020-12-03
ZERBITZUEN ATALEKO BURUA
JEFE/A SECCIÓN DE SERVICIOS
Sin./Fdo.: NEREA KARMELE LOPEZ-URIBARRI GOICOLEA - 2020-12-03
KONTRATAZIO ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE CONTRATACIÓN

ZERBITZUAK

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

PROZEDURA IREKIA

1. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA, ERREKURTSOAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA
   1.1. Araubide juridikoa
   1.2. Errekurtsoak
   1.3. Jurisdikzio eskuduna
2. KONTRATUAREN ZATIAK
   A) Administrazio kontratugilea
   2.1. Kontratatzeko eskumena
   2.2. Kontratuaren arduraduna
   2.3. Kontratatzailearen profila
   B) Kontratista
   2.4. Kontratatzeko gaitasuna
   2.5. Kaudimena
3. KONTRATUAREN XEDEA, GAUZATZEKO/ENTREGATZEKO EPEA ETA LUZATZEKO AUKERA
   3.1. Kontratuaren objektua
   3.2. Exekuzio-epea
   3.3. Luzatzeko aukera
4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO ETA GEHIENEKO AURREKONTUA, KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA ETA AURREKONTU-IZENDAPENA
   4.1. Lizitazioaren oinarrizko eta gehieneko aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia
   4.2. Urtekoa/urtekoak
   4.3. Aurrekontuko kontsignazioa
5. ESKATU DAITEZKEEN BERMEAK
   A) Behin-behineko bermea
   5.1. Behin-behineko bermea eskatzea, haren zenbatekoa eta araubidea
   5.2. Bermea jartzeko erak.
   5.3. Bermeak estali behar dituen erantzukizunak
   5.4. Bermea iraungitzea eta itzultzea
   B) Behin betiko bermea
   5.5. Bermea eskatzea eta haren zenbatekoa
   5.6. Bermea egiaztatzeko epea
   5.7. Bermea jartzeko erak
   5.8. Bermeak estali behar dituen erantzukizunak
   5.9. Bermea birjartzeko eta birdoitzeko araubidea
   5.10. Itzulketa eta ezereztea
6. KONTRATAZIO ESPEDIENTEA IZAPIDETZEA

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

6.1. Izapidetzea
6.2. Premiazkoa
6.3. Larrialdikoa
7. LIZITAZIOA
7.1. Printzipioak: berdintasuna, gardentasuna, publizitatea, informazioa eta konfidentzialtasuna.
7.2. Adjudikazio-prozedura
7.2.1. Prozedura
7.2.2. Adjudikazio-irizpideak
7.3. Proposamenak aurkezteko epea
7.4. Interesa duten enpresen proposamenak
7.4.1. Proposamena
7.4.1.1. Aurretikoa
7.4.1.2. Proposamenak aurkezteko modua
7.4.2. Aldaerak
7.4.3. Interesdunek aurkeztu beharreko dokumentazioa
7.4.3.1. Arau orokorrak
7.4.3.2. "A" GUTUNAZAL elektronikoan
7.4.3.3. "B" GUTUNAZAL elektronikoan
7.4.3.4. "C" GUTUNAZAL elektronikoan
7.4.3.5. Erreferentzia teknikoak
7.5. Enpresa lizitatzailearen ondorengoa izatea prozeduran
7.6. Eskaintzen balioespena
7.6.1. Organo eskuduna
7.6.2. Proposamenak irekitzea
7.6.2.1. Proposamenak irekitzea
7.6.2.2. "A" gutun-azal elektronikoa irekitzea
7.6.2.3. "C" gutun-azal elektronikoa irekitzea
7.6.2.4. "B" gutun-azal elektronikoa irekitzea
7.6.2.5. Kontratazio Mahai Zentralaren egintzen emaitza publiko egitea
7.6.2.6. Eskaintza baxuegiak
8. KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA, FORMALIZAZIOA ETA FORMALIZAZIOA PUBLIKO EGITEA
8.1. Orokorra edo aurretikoa
8.2. Adjudikazioa
8.2.1. Eskaintzak sailkatzea
8.2.2. Berdinketak hausteko irizpideak
8.2.3. Esparru-akordioa adjudikatu gabe uztea
8.2.4. Eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa
8.2.4.1. Kontratatzeko betekizunei buruzko frogagiriak
8.2.4.2. Dokumentazioa osatzea
8.2.4.3. Lizitatzaileen erregistro baten ziurtagiria baliatuz egiaztatzea
8.2.5. Adjudikatzeko epea
8.2.6. Enpresa lizitatzaileei adjudikazioa jakinaraztea eta kontratatzailearen profilean argitaratzea
8.2.7. Administrazioak kontratua ez adjudikatzeko edo egiteko erabakia hartzea eta adjudikazio-prozeduran atzera egitea
8.3. Kontratua formalizatzea
8.4. Kontratuaren formalizazioa publiko egitea
9. KONTRATUA GAUZATZEA
9.1. Kontratua betetzeko betebeharra

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

9.2. Administrazioaren eskumenak
9.3. Epea betetzea eta entregatzeko lekua
9.4. Exekuzio akastuna eta berandutzea
9.4.1. Exekuzio akastuna
9.4.2. Berandutzea
9.5. Kontratua exekutatzean hirugarrenei eragindako kalte-galerengatiko ordaina
9.6. Kontratuaren prezioa
9.6.1. Prezio zehatza
9.6.2. Prezioa ordaintzea
9.6.3. Ordaintzeko era
9.6.4. Urtekoak
9.6.5. Prezioak berrikustea
9.7. Kontratua aldatzea
9.8. Kontratua etetea
9.9. Kontratistaren betebeharrak.
9.9.1. Lan-, gizarte- eta ingurumen-arloko betebeharrak
9.9.2. Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak
9.9.2.1. Kontratua exekutatzeko baldintza bereziak betetzearen jarraipena
9.9.2.2. Kontratua exekutatzeko baldintza bereziak ez betetzearen ondorioak
9.9.3. Enpresa kontratista adjudikaziodunaren langileei buruzko arau bereziak
9.9.4. Aseguruak
9.9.5. Hirugarrenen baimenak
9.9.6. Materialen zaintza-betebeharra adjudikaziodunarentzat
9.9.7. Oztopo arkitektonikoak eta komunikaziorako oztopoak kentzea desgaitasuna duten pertsonentzat
9.10. Kontratistaren ondorengotza-kasuak
9.11. Gardentasuna
10. KONTRATUA AZKENTZEA
A) Kontratua betetzea
10.1. Jasotzea
10.2. Kontratuaren likidazioa
10.3. Berme-epeko akatsak eta hutsak
B) Kontratua suntsiaraztea
10.4. Kontratua suntsiarazteko arrazoiak
11. KONTRATUAK LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA
11.1. Kontratuak lagatzea
11.1.1. Mugak
11.1.2. Betekizunak
11.1.3. Eskubideetan eta betebeharretan subrogatzea
11.2. Azpikontratazioa
11.2.1. Azpikontratatu ahal izatea
11.2.2. Azpikontratatzeko baldintzak
11.2.3. Baldintzak haustea
11.2.4. Azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean duten betebeharra
11.2.5. Kontratazio Zerbitzuari bidali beharreko dokumentazioa
11.2.6. Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzea
11.2.7. Azpikontratistei edo hornitzaileei eginiko ordainketak egiaztatzea

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

1.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA, ERREKURTSOAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.

1.1.- Araubide juridikoa.

Agiri honetan jasotzen den kontratua administrazio-kontratua da, eta honako hauek izango ditu manu:

a) Administrazio klausula berezien plegu hau.
b) Dagokion baldintza teknikoen agiria.
c) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL).
d) 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duena.
e) Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zena.
f) Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko Foru Arau Orokorraren testu bategina, abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsia.
g) 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa
h) 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzkoa.
i) Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, zeinaren bidez onesten baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Erregelamendu Orokorra, Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorraren testu bategina garatzen duena, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko irailaren 4ko 118/2018 Foru Dekretuak aldatu duena.
j) Bizkaiko Foru Aldundiaren 31/2018 Foru Dekretua, martxoaren 13koa, Kontratuei buruzko Errekurtsoen Auzitegi Administratibo Forala arautzen duena.
k) Aldundiaren martxoaren 13ko 32/2018 Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 10eko 86/2016 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria.
l) Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 23ko 182/2014 Foru Dekretua, faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorra sortu eta faktura horiek izapidetu eta kontabilitatean erregistratzeko prozedura arautzen duena.
m) Bizkaiko Foru Aldundiaren 33/2018 Foru Dekretua, martxoaren 13koa, zeinaren bidez onartzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio-prozeduran klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak sartzeko erregelamendu betearazlea.
n) Kontratazioa arautzen duten eta arlo horretan aplikatzekoak diren Europar Batasuneko, Estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko edo Bizkaiko Lurralde Historikoko beste xedapen guztiak.

Administrazio-klausula partikularren agiri honek, beronen karatulak eta eranskinek, baldintza teknikoen agiriak eta ondoren kontratua formalizatzeko egingo den agiriak, denek dute kontratu-izaera.

1.2. Errekurtsoak.

Administrazio-errekurtsoen eremuan bi kasu bereizi behar dira:

a) Kontratuen **balio zenbatetsia EHUN MILA EUROKOA (100.000 €) edo HANDIAGOA** denean: errekurtsoen araubidea izango da Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkidegoari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa (aurrerantzean, APEL)
b) Kontratuen **balio zenbatetsia EHUN MILA EUROTIK (100.000 €) GORAKOA** denean: SPKLren 44. artikuluko 2. apartatuko zerrendako egintzen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, nahi bada, kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri ahal izango da. Errekurtso bereziaren bidez aurkaratzeko modukotzat jasotako jarduketen aurka ezingo da administrazio-errekurtso arruntik aurkeztu.

   Kontratuei buruzko Errekurtsoen Auzitegi Administratibo Forala da errekurtsoa ezagutzeko eskumena duen organoa.

   Ezin izango da jarri kontratazio-arloko errekurtso berezia, baldin eta adjudikazio-prozedurak larrialdiko izapidearen bidez egiten badira.

Kontratazio-arloko errekurtso berezia:

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

Ezaugarriak. - Kontratazio-arloko errekurtso berezia aukerakoa izango da, eta doakoa izango da errekurtso-jartzaileentzat.

Xedea. - Errekurtsoa jarri ahal izango da jarduketa hauen aurka:

a) Kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten lizitazio-iragarkien, baldintza-agirien eta kontratu-dokumentuen aurka.

b) Adjudikazio-prozeduran hartutako izapide-egintzen aurka, baldin eta egintza horiek, zuzenean edo zeharka, adjudikazioari buruz erabakitzen badute, prozedurak aurrera jarraitzea eragozten badute edo eskubide zein interes legitimoetan defentsa-gabezia edo kalte konponezina sortzen badute. Nolanahi ere, iritziko zaio kontratazio-mahaiak edo -organoak lizitatzaileak onartzea edo ez onartzea erabakitzen duen egintzetan gertatzen direla aurreko inguruabarrak, edo eskaintzak onartzea edo baztertzea erabakitzen duen egintzetan, horien barnean direla nabarmenki baxuegiak izateagatik SPKLren 149. artikulua aplikatuta baztertzen diren eskaintzak.

c) Adjudikazio-erabakien aurka.

d) SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea oinarritzat daukaten aldaketen aurka, aldaketak direla-eta beste adjudikazio bat egin beharra zegoelakoan.

Aurreko apartatuetan aipatutako egintzez bestelakoei eragiten dieten izapidetze-akatsak espedientearen instrukzioaren ardura duen organoari edo kontratazio-organoari jakinarazi ahal dizkiote interesdunek, zuzenbidearen arabera zuzenduak izan daitezen. Nolanahi ere, interesdunek aukera izango dute eragiten dieten irregularitasunak alegatzeko, adjudikazio-egintzaren aurkako errekurtsoa jartzen dutenean.

Legitimazio aktiboa. - Edozein pertsona fisiko edo juridikok jar dezake kontratazio-arloko errekurtso berezia, errekurtsoaren xede diren erabakiek zuzenean edo zeharka haren eskubide edo interes legitimo banakakoei zein kolektiboei kalte egin badiete edo kalte egiteko arriskua badago.

Erakunde sindikalek ere izango dute errekurtso hori aurkezteko legitimazioa, baldin eta errekurtsogai diren jarduketa edo erabakien ondorioz atera badaiteke, ondo oinarrituta atera ere, jarduketok edo erabakiok dakartela kontratua exekutatzeko prozesuan enpresak ez dituela beteko prestazioa ematean parte hartzen duten langileekiko betebehar sozialak edo lan-arlokoak. Ukitutako interesak ordezkatzen dituen enpresa-erakunde sektoriala legitimatutzat joko da beti.

Errekurtsoa jartzeko epea. - Errekurtso-prozedura idazki baten bidez hasiko da, eta idazki hori hamabost egun baliodunеko epean aurkeztu beharko da. Epe hori SPKLren 50. artikuluan ezartzen diren arauen arabera zenbatuko da.

Errekurtsoa jartzeko era. - Errekurtsoa jartzeko idazkian, honako alderdi hauek adierazi beharko dira: errekurtsoa zein egintzari jartzen zaion, errekurtsoa jartzeko arrazoia zein den, errekurtsogileak zer froga-bitarteko erabili nahi dituen eta, hala badagokio, zein kautela-neurri hartzea eskatzen den, eta SPKLren 51. artikuluan zerrendatutako dokumentazioa erantsiko da.

Errekurtsoa jartzeko lekua. - Errekurtsoa jartzeko idazkia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak (aurrerantzean, APEL) aurreikusten dituen tokietako batean aurkeztu ahalko da. Halaber, kontratazio-organoaren erregistroan edo errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoaren erregistroan aurkeztu ahalko da. Aipatutako bi horietaz beste erregistro batean aurkeztutako idazkiak ahal den bezain laster jakinarazi beharko zaizkio auzitegiari.

Izapidetzea. - Errekurtso hori izapidetzeko, SPKLren 56. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

Errekurtsoetarako organo eskuduna. - Errekurtsoak ezagutu eta ebaztea Kontratuei buruzko Errekurtsoen Auzitegi Administratibo Foralari dagokio.

Errekurtso bereziaren ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezingo da jarri, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

1.3.- Jurisdikzio eskuduna.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du administrazio-kontratuak prestatzeari, adjudikatzeari, haien ondorioei, betetzeari eta azkentzeari buruz sortzen diren auzigaiak ebazteko eskumena.

2.- KONTRATUAREN ZATIAK.

A) Administrazio kontratugilea.

2.1. Kontratatzeko eskumena.

Kontratazio-organoa baldintzen agiri honen karatulako “C” atalean adierazten dena da (KONTRATAZIO-ORGANOA).

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

2.2.- Kontratuaren arduraduna.-

Agiri honen karatulako "V" atalean adierazten den pertsona (BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK), edo kontratazio-organoak kontratua gauzatzeko zehazten duena.

2.3.- Kontratugilearen profila.-

Profila da baldintzen agiri honen karatulako "U" (KONTRATUGILEAREN PROFILA) atalean zehazten dena.

Profilera sartzeko, erakundearen web orrira jo daiteke, eta kontratazio-organoak kontratuen inguruan duen jardunari buruzko datuak eta informazioak jasoko bertan.

www.bizkaia.eus/contratacion

Euskadiko Kontratazio Plataformatik ere sartu ahal izango da:

www.contratacion.euskadi.eus

B) Kontratista.

2.4. Kontratatzeko gaitasuna.

Pertsona naturalek edo juridikoek soilik egin ditzakete kontratuak Bizkaiko Foru Aldundiarekin, espainiarrak edo atzerrikoak izan, baina horretarako, jarduteko gaitasuna izan behar dute, ez dute kontratatzeko debekuan sartuta egon behar, eta ekonomia eta finantza, teknika zein lanbide arloetako kaudimena ziurtatu behar dute salbu Agiri honen karatulako pleguan ez dela nahitaez aurkeztu behar adierazten bada. Halaber izan beharko dute kasuan kasuko enpresa- edo lanbide-gaikuntza, hau da, kontratuaren xede diren prestazioak egiteko eska daitekeena.

a) Pertsona juridikoak: bakarrik izan ahal izango dira kontratuen adjudikaziodun baldin eta kontratuotako prestazioak pertsona juridiko horiek —haiek eratzeko estatutuen edo arauen arabera— berezko dituzten helburu, xede edo jarduera-arloen artean badaude.

b) Europar Batasuneko enpresak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatu bateko enpresak: Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko enpresek edo Espainiakoak ez izanik Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duen estatu bateko enpresek sektore Bizkaiko Foru Aldundiarekin kontratatzeko gaitasuna izango dute, baldin eta enpresak ezarrita dauden estatuko legeen arabera gaituta badaude dena delako prestazioa emateko. Estatu batek bere lurraldean ezarrita dauden enpresei baimen bereziren bat izatea edo organizazio jakin batekoak izatea eskatzen badie bertan dena delako zerbitzua emateko, enpresek egiaztatu egin beharko dute betetzen dutela betekizun hori.

c) Europar Batasunetik kanpoko enpresak: nazioarteko akordioak direla-eta Espainiak dauzkan betebeharren aplikazioa alde batera utzi gabe, Europar Batasunekoak ez diren edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek txosten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresak jatorri duen estatuak bere aldetik enpresa espainiarren parte-hartzea onartzen duela SPKLren 3. artikuluan aipatutakoekin pareka daitezkeen sektore publikoko enteekiko kontratazioetan, funtsean antzekoa den modu batean.

d) Enpresa-elkarteak: aldi baterako xede horretarako eratzen diren enpresa-elkarteek kontratuak egin ahal izango dituzte Bizkaiko Foru Aldundiarekin; elkartea ez dute eskritura publikoan formalizatu behar, harik eta kontratua enpresa-elkarteari adjudikatzen zaion arte.

Aldi baterako elkartea eratuz lehiatzen diren enpresek betebehar solidarioa izango dute, eta enpresa-elkartearen izenean ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko kontratua azkendu arteko ahalorde askirekin; nolanahi ere, zenbateko handi samarrak kobratzeko eta ordaintzeko ahalorde mankomunatuak eman ahal izango dituzte enpresek. Lizitazioari begira, lizitaziora aldi baterako elkartea osatuz aurkeztu nahi duten enpresek elkartearen partaideen izenak eta inguruabarrak adierazi beharko dituzte, baita bakoitzak zenbateko partaidetza duen ere. Gainera, kontratua adjudikatzen bazaie, orobat adierazi beharko dute aldi baterako elkarte bat formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela.

Aldi baterako enpresa-elkarteen iraupenak bat etorri behar du, gutxienez, kontratuak azkendu arte duen iraupenarekin.

2.5.- Kaudimena.

Agiri honen karatulako "T" atalean (KAUDIMENA) zehazten denaren arabera egiaztatu behar da.

Kontratu jakin bat egiteko behar den kaudimena eta gaitasuna egiaztatzeko, enpresa beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritu ahal izango da, erakunde horiekin dituen harremanen izaera juridikoa dena dela ere, eta, betiere, egiaztatzen badu benetan izango dituela hala kaudimena nola bitartekook kontratua gauzatzeko aldiak diraun bitartean, eta beste erakunde horiek ez dutela kontratatzeko debekurik.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

3.- KONTRATUAREN XEDEA, GAUZATZEKO/ENTREGATZEKO EPEA ETA LUZATZEKO AUKERA.

3.1.- Kontratuaren xedea.

Kontratuaren xedea baldintzen agiri honen karatulako "A" (KONTRATUAREN XEDEA) atalean adierazten da eta, halakorik dagoenean, loteka eginiko banaketarekin. SPKLko 17. artikuluan xedatutakotik ondorioztatzen da kontratuaren sailkapena.

Kontratuaren xedea ez bada loteka bereizten, agiri honen karatulako "A" atalean justifikatuko da (KONTRATUAREN XEDEA).

Kontratuaren xedea lotetan zatitzen bada, lizitatzaileak aukera bi izango ditu. Batetik, kontratuaren xedea osorik hartzen duen eskaintza bat egin dezake, eta eskaintza hori lotetan banatu. Eta, bestetik, xede osoko lote baterako edo gehiagorako eskaintza egin dezake.

Adjudikazioa loteka egiteko mugak eta horri buruzko arauak agiri honen karatulako "A" atalean ezartzen dira (KONTRATUAREN XEDEA).

Loteka adjudikatzen diren kontratuetan (ez bada besterik aurreikusten baldintza-agiri honen karatulan), lote bakoitzeko kontratu bat izango da, salbu eta eskaintza integratzaileak aurkezten direnean, halakoetan eskaintza guztiek osatzen baitute kontratu bakarra.

3.2.- Exekuzio-epea.

Gauzatzeko eta/edo entregatzeko epea baldintzen agiri honen karatulako "N" (BURUTZEKO/ENTREGATZEKO EPEA) atalean adierazten dena da.

Finkatutako epean zehar lanek aurrera egingo dutela bermatzeko epe partzialak ezarri behar dira; horiek eskaintzako Lan Planetik ondorioztatuko dira, edo Administrazioak ezarriko ditu Lan Programa onesten duenean.

3.3.- Luzatzeko aukera.

Kontratua luzatuz gero, baldintzen agiri honen karatulako "Ñ" (LUZATZEKO AUKERA) atalean adierazten dena aplikatuko da.

Kontratazio-organoak erabakiko du luzapena egitea eta bete beharrekoa izango da kontratistarentzat, baldin eta aurreabisua kontratuaren iraupen-epea amaitu baino bi hilabete lehenago egiten bada, baina agiri honen karatulan ez bada epe luzeagorik ezartzen. Aurreabisuaren betebeharretik salbuetsirik egongo da, baldin eta agiri honen karatulan ezartzen den kontratuaren iraupena bi hilabete baino gutxiago bada.

Ezein kasutan ez da luzapenik egingo alderdi bien isilbidezko adostasunaren bitartez.

Kontratistarentzat luzapena ez da nahitaezkoa izango kontratuan SPKLren 198.6 artikuluan ezartzen den suntsiarazpen-arrazoia gertatzen denean Bizkaiko Foru Aldundia sei hilabete baino gehiago atzeratu delako prezioa ordaintzen.

Goiko apartatuetan ezarritakoa gorabehera, jarraian ematekoak diren zerbitzu-kontratuetan, kontratu baten epea bete eta ez bada formalizatu beste kontratu bat bermatuko duena jarraipena izango duela kontratistak egin beharreko zerbitzuak, eta horren arrazoia bada kontratazio-organoak ezin aurreikusizkoak dituen gorabeherak izan direla adjudikazio-prozeduran, eta, gainera, prestazioa ez eteteko interes publikoko arrazoiren bat baldin bada, orduan aukera izango da jatorrizko kontratua luzatzeko, harik eta kontratu berria exekutatzen hasi arte, baina, edozein modutan ere, bederatzi hilabeterako gehienez ere, eta kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe. Horretarako, nahitaezkoa izango da kontratu berriaren lizitaziorako iragarkia jatorrizko kontratua amaitu baino hiru hilabete lehenago gutxienez argitaratzea . Halakoetan, kontuan hartuta luzapena ezin aurreikusizkoa dela eta goian ezarritakoa ez dela aplikatzen kontratazio-organoak hala nahi duelako, luzapena ez da kontuan hartuko balio zenbatetsia zehazteko eta ez da aplikatzekoa izango goian aipaturiko aurreabisuaren betebeharra.

4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO ETA GEHIENEKO AURREKONTUA, KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA ETA AURREKONTU-IZENDAPENA.

4.1.- Lizitazioaren oinarrizko eta gehieneko aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia.

Lizitazioaren oinarrizko eta gehieneko aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia baldintzen agiri honen karatulako "D" atalean adierazten direnak dira (LIZITAZIOAREN OINARRIZKO ETA GEHIENEKO AURREKONTUA ETA BALIO ZENBATETSIA).

4.2.- Urtekoa/urtekoak.

Agiri honen karatulako "E" (URTEKOAK) atalean zehazten dena bete behar da.

4.3.- Aurrekontu-izendapena.

Agiri honen karatulako "F" atalean zehazten dena bete behar da (AURREKONTU-IZENDAPENA).

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

5.- ESKA DAITEZKEEN BERMEAK.

A) Behin-behineko bermea.

5.1.- Behin-behineko bermea eskatzea, haren zenbatekoa eta araubidea.

Agiri honen karatulako "J" atalean (BEHIN-BEHINEKO BERMEA) ezartzen da.

5.2.- Bermea jartzeko erak.

Behin-behineko bermea jartzeko, SPKLko 108.1. artikuluan aurreikusitariko bideetako edozein balia daiteke. Berme-bideok behin betiko bermeari buruzko epigrafean jasotzen dira.

5.3.- Bermeak estali behar dituen erantzukizunak

Eskatzen baldin bada, eskaintza kontratua burutu arte mantentzen dela bermatuko du behin-behineko bermeak.

5.4.- Iraungipena eta itzultzea.

Behin-behineko bermea automatikoki iraungiko da, eta kontratua burutu eta berehala itzuliko zaie lizitatzaileei. Edozelan ere, adjudikaziodun hautatu den lizitatzaileari behin betiko bermea eratu ondoren itzuliko zaio behin-behineko bermea.

B) Behin betiko bermea.

5.5.- Bermea eskatzea eta haren zenbatekoa.

Orri honen karatulako "K" (BEHIN BETIKO BERMEA) atalean ezarriko da behin betiko bermea eskatuko den ala ez, eta, eskatuz gero, haren zenbatekoa zein izango den ere bai.

5.6.- Bermea egiaztatzeko epea.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak hamar (10) egun balioduneko epean egiaztatu beharko du bermea, behin betiko bermea aurkezteko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

5.7.- Bermea jartzeko erak.

a) Eskudirutan, 6. ERANSKINAren arabera, edo Zor Publikoko baloreetan.

b) Abal bidez, 4. ERANSKINAren arabera, eta abal hori Espainian jarduteko baimenduta dauden banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba, kredituko finantza-establezimendu edo elkarrekiko berme sozietateetako batek eman behar du.

c) Kauzio-aseguru baten bidez, 5. ERANSKINAren arabera; aseguru hori arlo horretan jarduteko gaituta dagoen aseguru-erakunde batekin egin behar da.

d) Prezioan atxikipena eginez; atxikipen hori lehenengo fakturaren zenbatekoaren gainean egingo da, edo, fakturak ez badu behar besteko zenbatekorik, hurrengoen zenbatekoen gainean. Horretarako, beharrezkoa izango da eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak eskatzea prezioan atxikipena egitea, plegu honen 11. eranskina aurkeztuta.

b) eta c) kasuetan jarraian adieraziko den beste dokumentazio hau ere aurkeztu behar da, aurretik aurkeztu ez bada:

1. Enpresa abal-emailearen edo aseguratzailearen izenean jarduten duen pertsonaren NANa.
2. Ahalorde-eskritura; bertan, abal edo kauzio-asegurua izenpetzen dutenek dituzten ahalmenak jaso behar dira.

Hirugarrenek jarritako bermeen araubidea SPKLren 112. artikuluan ezartzen dena izango da.

5,8.- Bermeak estali behar dituen erantzukizunak.

Honako kontzeptu hauez baino ez du erantzun behar behin betiko bermeak:

a) Kontratua epearen barruan formalizatzeko obligazioa, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) SPKLren 192. artikuluarekin bat kontratistari ezartzen zaizkion zigorrak.

c) Batetik, kontratuan jasotzen diren prestazioak zuzen gauzatzen direla (barnean harturik kontratistak eskaini eta kontratazio-organoak onarturiko hobekuntzak); bestetik, kontratista bere eginbeharrak betetzerakoan berandutzeak Bizkaiko Foru Aldundiari eragiten dizkion gastuak; eta, azkenik, kontratua gauzatzeak edo ez betetzeak Bizkaiko Foru Aldundiari eragiten dizkion kalte-galerak, ez dagokionean kontratua suntsiaraztea.

d) Kontratua suntsiarazten denean dekretatu daitekeen konfiskatzea, kontratuan edo SPKLn ezarrita dagoenaren arabera.

e) Horiez gainera, eraikitako edo emandako ondasunetan nahiz emaniko zerbitzuetan akatsik edo okerrik ez egotea kontratuan ezarrita dagoen berme-epean zehar.

5.9.- Bermea birjartzeko eta birdoitzeko araubidea.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

Behin betiko bermea birjartzeko eta birdoitzeko araubidea SPKLren 109. artikuluan ezartzen dena da.

5.10.- Itzulketa eta kitapena.

Bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta baldintza-agiri honen karatulan ezartzen den berme-epea edo, bestela, kontratuan bertan ezartzen den epea amaitu eta kontratua behar bezala bete arte, edo kontratua suntsiarazten ez den arte, kontratistaren errurik gabe betiere. Izapidetzea SPKLren 111. artikuluan ezartzen diren arauen arabera egingo da.

Kontratuaren xedearen zati bat soilik jasotzen bada, kontratistak soilik eska dezake bermearen zati proportzionala itzultzeko edo ezerezteko, baldin eta hori berariaz baimentzen bada baldintza-agiri honen karatulan.

Kontratuak lagatzen badira, ez da lagatzaileak jarritako bermea itzuliko edo ezereztuko harik eta lagapen-hartzailearen bermea behar bezala eratu arte.

6.- KONTRATAZIO ESPEDIENTEA IZAPIDETZEA.

6.1.- Izapidetzea.

Kontratazio-espedientea agiri honen karatulako "G" atalean zehazten denaren arabera izapidetuko da (IZAPIDETZEA ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURA).

Epea baino lehen izapidetzen diren espedienteetan, adjudikazioa egin ahal izateko, baldintza bat bete behar da: kontratuaren exekuzioa hasiko den ekitaldian kreditu egokia eta nahikoa egon behar da kontratu honetatik eratorritako obligazioak bermatzeko.

6.2.- Presazkoa.

Presazkotzat jotzen diren espedienteak izapidetzeko, espediente arruntekin erabiltzen den prozedura bera erabiliko da, SPKLren 119. artikuluan jasotzen diren berezitasunekin.

6.3.- Larrialdia.

Larrialdiko izapidetzeaz kalifikaturiko espedienteak SPKLren 120. artikuluan jasotzen den salbuespenezko araubidea izango dute.

7.- LIZITAZIOA

7.1. Printzipioak: berdintasuna, gardentasuna, lehia askea, publizitatea, informazioa eta konfidentzialtasuna.

1. Kontratazio-organoak berdintasunez tratatuko ditu lizitatzaileak eta hautagaiak, diskriminaziorik gabe, eta gardentasun- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera jardungo du.

2. Kontratazioa nola egin pentsatzean, asmoa ez da izango publikotasun-betekizunak edo kasuan-kasuan dagokion adjudikazio-prozedurari buruzkoak saihestea, ez eta lehia artifizialki murriztea, dela enpresa batzuk lagunduz dela beste batzuk bidegabeki kaltetuz.

3. Kontratazio-organoak adjudikazio-prozedura guztian zehar zainduko du lehia askearen babesa.

4. Kontratazio-organoak ezin izango du enpresek emaniko informaziorik zabaldu, baldin eta enpresok isilpekotzat izendatu badute beren eskaintza aurkeztean. Isilpeko izango dira, besteak beste, sekretu teknikoak eta merkataritzakoak, eskaintzen alderdi isilpekoak eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informazio, dela lizitazio-prozedura honetan dela gerokoren batean.

Kontratazio-organoaren eta haren mendeko zerbitzuen konfidentzialtasun-betebeharra ezingo zaio ezarri adjudikaziodunaren eskaintzaren eduki osoari, ez eta kontratazio-organoak lizitazio-prozeduran zehar zuzenean edo zeharka sortzen dituen txosten eta agiri guztiei ere. Zabalkunde murriztua duten dokumentuei baino ezingo zaie ezarri eginbehar hori, eta ezein kasutan publikoki eskuratzekoak direnei.

Kontratistak isilpean gorde behar du kontratua exekutatzen den bitartean eskuratzen duen informazioa, baldin eta informazio hori isilpekotzat jo bada baldintza-agirietan edo kontratuan, edo informazioaren beraren izaera dela-eta isilpean gorde behar bada. Eginbehar hori informazioaren berri izan eta bost urtez egongo da indarrean, salbu eta kontratuak edo baldintza-agiriek epe luzeago bat ezartzen ez badute, betiere denbora-tarte zehatz eta mugatu baterako.

Hala badagokio, Aldundiak eta hirugarren laguntzaileek eman dezaketen informazio guztia erreserbatuta geratuko da, eta ezin izango da zabaldu edo ustiatu Bizkaiko Foru Aldundiaren idatzizko baimenik gabe. Desleialtzat joko da konpromiso hau urratzeko jokabide oro, Lehia Desleialari buruzko urtarrilaren 10eko 3/1991 Legearen 14. artikuluaren arabera, Enpresa-sekretuei buruzko otsailaren 20ko 1/2019 Legearekin lotuta.

7.2.- Adjudikazio-prozedura:

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

7.2.1.- Prozedura.

Adjudikazio-prozedura agiri honen karatulako "G" atalean ezartzen dena izango da (IZAPIDETZEA ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURA). Prozedura irekian interesa duen edozein enpresak aurkeztu ahalko du proposamena, eta ezingo da lizitatzaileekin kontratuaren baldintzei buruzko inolako negoziaziorik egin.

7.2.2.- Adjudikazio-irizpideak.

Adjudikazio-irizpide asko erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, kalitate-prezio erlazio onena oinarritzat harturik; hala ere, salbuespen gisa adjudikazio-irizpide bakarra erabiltzen den kasuetan, kostuekin loturik egon beharko du irizpide bakar horrek: izan liteke prezioa edo errentagarritasunean oinarrituriko irizpide bat, hala nola bizi-zikloa. Horien gaineko zehaztapenak baldintzen agiri honen karatulako "I" atalean (ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK) jasotzen dira.

7.2.3.- Adjudikazio-irizpideen aplikazioa.

Balio-judizio baten arabera kuantifikatzekoak diren irizpideak ebaluatzeko (esleitua duten haztapena handiagoa delako automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei dagokiena baino), aukera bi izango dira:

- kualifikazio egokia duten adituen batzorde bat eratuko da, gutxienez hiru lagunek osatua; kide horiek kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuetakoak izan daitezke, baina inola ezingo dira egon kontratua proposatzen duen organoari adskribaturik.
- erakunde tekniko espezializatu bat eratuko da.

Batzorde edo erakunde tekniko espezializatua baldintzen agiri honen karatulako "I" atalean (ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK) adierazitako izango da.

7.3.- Proposamenak aurkezteko epea.

Agiri honen karatulako "Q" (PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA) atalean ezartzen dena bete behar da.

Egunean 24 orduz asteko 7 egunetan aurkeztu daitezke eskaintzak. Eskaintzaren aurkezpen-data eta -ordua Bizkaiko Foru Aldundiaren erregistro elektronikoak ematen duen frogagirian ageri direnak izango dira, eta bat etorriko dira eskaintzaren harrera amaitzen den unearekin.

Bitarteko elektronikoak erabiliz gero, bi modutara bidal daitezke eskaintzak: osorik edo bi fasetan. Bigarren aukeran, lehenenik eta behin, eskaintzaren «hash» hatz-marka elektronikoa helarazi beharko da —hatz hori jasotzearekin, egintzat hartuko da eskaintzaren aurkezpena, ondorio guztietarako—, eta, gero, eskaintza bera, gehienez ere 24 orduko epean; bigarren igorpen hori adierazitako epean egiten ez bada, eskaintza erretiratu egin dela ondorioztatuko da.

Eskaintzaren «hash» hatz-marka elektronikotzat jotzen da datu-multzo bat eskaintzaren edukiarekin zalantzarik gabe loturik dagoena (datuok sortzeko prozesuaren bitartez), eta bidea ematen duena detektatzeko ea aldaketarik egon den eskaintzaren edukian. Horrela, bermaturik geratzen da eskaintza osoa, prozesu horrek modua ematen baitu egiaztatzeko ez dela edukian aldaketarik izan behin lizitatzaileak bere eskaintza bidaltzen duen unetik aurrera.

Lizitatzaileek eskaintza bi fasetan bidaltzea aukeratzen badute –esate baterako, uste dutelako eskaintzaren neurriagatik arazoak gerta litezkeela transmisioan, sareko konexio-arazoak egon litezkeela, eta abar–, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino lehen bidali behar dute, betiere, beren eskaintzaren «hash» hatz-marka elektronikoa. Halakoetan, 24 orduko epea izango dute eskaintza bidaltzen amaitzeko, eta epe hori, hain zuzen ere, «hash» hatz-marka elektronikoa contratacionservicios@bizkaia.eus posta elektronikora bidaltzen duten unean hasiko da zenbatzen. Nolanahi ere, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino lehen egin behar da hori guztia.

Lizitatzaileek contratacionservicios@bizkaia.eus posta elektronikora igorri behar dute, transkribaturik (ez irudia), beren eskaintzaren «hash» hatz-marka elektronikoa. Mezu horretan, halaber, zein espediente-zenbakiri dagokion adierazi behar da, eta lizitatzailearen identifikazio-datuak eman, hartara Kontratazio Mahaiak egiazta dezan hatz-marka digitala bat datorrela aurkezturiko eskaintzaren hatz-markarekin (behin eskaintza bidalita).

Ezin bada eskaintza baten edukia eskuratu artxiboa kalteturik dagoelako, lizitatzailearen ekipoan automatikoki sortzen den kopia baliatu daiteke, eta egiaztatu eskaintzaren hatz-marka digitala bat datorrela kontratazio-organoak daukanarekin.

7.4.- Interesa duten enpresen proposamenak:

7.4.1.- Proposamena. -

7.4.1.1.- Aurretikoa. -

1. Interesdunen proposamenek lizitazioa eraentzen duten baldintza-agiri eta dokumentuen araberakoak izan behar dute, eta proposamenok aurkezteak berez dakar enpresek baldintzarik gabe onartzea klausula edo baldintza guztien edukia, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe, bai eta baimena ematea ere Kontratazio Mahaiari nahiz kontratazio-organoari honako datu hauek egiaztatzeko:

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

a) Enpresaren IFZ eta ordezkariaren zein enpresaburu indibidualaren NANa,

b) Lizitatzaileen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialetan dauden datuak edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan daudenak, eta

c) Ea enpresak egunean dituen tributu-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak. Baimen horren bidez, aukera emango da kontratazio-espedientera gehitu beharreko ziurtagiriak lortzeko ere.

2. Proposamenak isilpekoak izango dira, eta irekitzen diren arte isilpean gordeko direla bermatzeko neurriak hartu behar dira.

3. Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposizio bat baino gehiago aurkeztu, aldaeren onarpenaren gainean xedatutakoa gorabehera. Horrez gain, proposamena banaka egin baldin badu, ezin izango du inolako proposamenik egin beste batzuekin aldi baterako batuta, ez eta aldi berean enpresa-elkarte baten baino gehiagotan egon. Arau horiek betetzen ez baditu, ez da onartuko lizitatzaile horrek eginiko proposamen bat ere.

7.4.1.2.- Proposamenak aurkezteko modua.

Proposamenak elektronikoki aurkeztu behar dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez.

Lizitazioak elektronikoki aurkeztu ahal izateko, lehenik eta behin, interesdunak eskaintzak aurkezteko aplikazioa deskargatu behar du. http://apps.bizkaia.eus/sobresjnlp/webstart/aplicacionOfertas.jnlp

Lizitazio Elektronikorako Plataforman sartzeko, nahitaezkoa da lizitatzaileak Bizkaiko Foru Aldundiak onartzen duen egiaztagiri elektroniko aitortu edo kualifikatu bat izatea. https://appsec.ebizkaia.eus/SEEA002C/certificadosEnt

Eskaintza elektroniko batean eransten den fitxategi bakoitzak 75 MB izan ditzake gehienez ere, eta eskaintza osoak, berriz, 200 MB guztira.

Plataformak ez du ezartzen mugarik eskaintzari erantsi ahal zaizkion artxiboen kopuruari dagokionez.

Hona zein formatu onartzen diren eskaintza bati erantsitako dokumentuak aurkezteko:

- .doc | .docx : Microsoft Word-eko jatorrizko testu-formatuak.
- .xls | .xlsx : Microsoft Excel-eko kalkulu-orrien jatorrizko formatuak.
- .ppt |.pptx : Microsoft PowerPoint-eko jatorrizko aurkezpen-formatua.
- .rtf : Testu-formatu estandarra.
- .sxw : Star Office-eko jatorrizko testu-formatua.
- .abw : Abiword-eko jatorrizko testu-formatua.
- .pdf : Adobe Acrobat-eko jatorrizko dokumentu-formatua.
- .jpg : Formatu grafikoa.
- .bmp : Microsoft Windows-eko jatorrizko formatu grafikoa.
- .tiff | .tif : Formatu grafikoa.
- .odt : OpentDocument testu-formatua.
- .ods : OpentDocument kalkulu-orrien formatua.
- .odp : OpentDocument aurkezpen-formatua.
- .odi : OpentDocument irudi-formatua.
- .zip : Winzip-eko jatorrizko trinkotze-formatua, Microsoft Windows-ek onartua.
- .dwg : AutoCAD-eko marrazketa-formatua.

Aukera gisa, beste formatu batzuetako artxiboak eransteko, artxibo trinkotu batean bil daitezke (ZIP).

Lizitatzaileen ardura da eskaintzak birusik gabe bidaltzea.

Hala ere, artxibo batek birusa izateak, berez, ez du esan nahi eskaintza baztertua izatea, baldin eta haren edukia eskuratzeko modua bada.

Kasuan kasuko inguruabarrak kontuan hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiko Kontratazio Mahaiak hartuko du horren gaineko erabakia.

7.4.2. Aldaerak.

Baldintzen agiri honen karatulako “M” (ALDAERAK ONARTZEA) atalean ezartzen dena bete beharko da.

7.4.3. Aurkeztu beharreko agiriak:

7.4.3.1. Arau orokorrak:

1.- Gutun-azalen kopurua.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

BI GUTUN-AZAL ELEKTRONIKO: adjudikazio-irizpide bakarra ezartzen bada, edo ezarritako adjudikazio-irizpide guztiak automatikoki kuantifikatu badaitezke:

"A" GUTUN-AZAL elektronikoa (aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa).

"B" GUTUN-AZAL elektronikoa (dokumentazio teknikoa eta automatikoki kuantifikatu daite(z)keen irizpideari/irizpideei buruzkoa).

HIRU GUTUN-AZAL ELEKTRONIKO: automatikoki kuantifikatu daite(z)keen edo automatikoki ezin kuantifika daite(z)keen irizpidea(k) ezartzen bad(ir)a:

"A" GUTUN-AZAL elektronikoa (aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa).

"B" GUTUN-AZAL elektronikoa (automatikoki kuantifikatu daite(z)keen irizpideari/irizpideei buruzko dokumentazioa).

"C" GUTUN-AZAL elektronikoa (automatikoki kuantifikatu ezin daite(z)keen irizpideari/irizpideei buruzko dokumentazioa).

Baldintza-agiri honen karatulako "I" atalean zehazten da (ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK) zer dokumentazio den beharrezkoa adjudikazio-irizpideak haztatzeko.

2.- Hizkuntza.

Atzerriko enpresek gaztelaniara edo euskarara modu ofizialean itzulita aurkeztu behar dute dokumentazioa.

7.4.3.2. "A" GUTUN-AZAL elektronikoan, honako dokumentazio hau sartu behar da (aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa):

Europar Batasuneko Kontratazioko Agiri Bakarra (EKAB), sinatzeko ahalorde nahikoa duenak sinatua. Agiri hori Europako Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko (EE) 2016/7 Exekuzio Erregelamenduak ezartzen du (EBAO L 3/16, urtarrilaren 3koa). EKAB agiria erregelamendu horren 2. ERANSKINAren arabera bete behar da. Helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke:

https://visor.registrodelicitadores.gob.es

EKAB betetzeko, lagungarria da Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordeak egindako gida, hain zuzen ere, 2016ko apirilaren 6ko Ebazpen bidez onartu zen Gomendiokoa (BOEn argitaratu zen, 85. zenbakian, 2016ko apirilaren 8an). Gomendio hori helbide elektroniko honetan kontsultatu daiteke:

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2016-3392

XML artxiboa, prozedura honetarako formulario berezia duena, kontratatzailearen profilean eskuratu dezakete lizitatzaileek.

Formularioaren II., III., IV. eta VI. zatiak bete beharko dira. IV. zatia X batez markatutako aukerarekin bat beteko da: -IV. zatiaren α atala besterik ez dute beteko; IV. zatiaren gainerako atalak ez dira beteko.

Enpresa lizitatzaileak beste enpresa batzuen kaudimenera eta baliabideetara jotzen duen kasuetan, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoari jarraituz, enpresa horietako bakoitzak Europar Batasuneko Kontratazioko Agiri Bakarra (EKAB) aurkeztu beharko du.

Zenbait enpresa aldi baterako elkarte bat eratuz aurkezten badira lizitaziora, elkartea osatzen duten enpresetariko bakoitzak bere nortasuna, gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu; beraz, enpresa guzti-guztiek aurkeztu beharko dute EKAB agiriaren formulario normalizatu bana.

Kontratazio-organoak edo mahaiak lizitatzaileei eska diezaiekete egiaztagiri guztiak edo haien parte bat aurkezteko, baldin eta uste badute badela duda arrazoizkorik adierazpen baten indarraldiari edo fidagarritasunari buruz, beharrezkoa bada prozedura zuzen egin dadin eta, edozelan ere, kontratua adjudikatu aurretik, APELen 69. artikuluan ezartzen den moduan.

Hori guztia gorabehera, ondoren aipatzen diren erregistro eta datu-baseetan inskribatuta edo jasota egonez gero, enpresa ez da beharturik egongo toki horietan jasota dauden datuen frogagiriak edo dokumentu bidezko frogak aurkeztera, baldin eta organoak doan sar badaitezke bertara: Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofiziala; Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroa; Bizkaiko Foru Aldundiko Lizitatzaileen Erregistro Ofiziala, edo Europar Batasuneko estau kide baten datu-baseren bat, hala nola, enpresaren espediente birtual bat, dokumentuen biltegiratze elektronikoko sistema bat edo aurresailkapeneko sistema bat.

Gainera, goian aipaturiko hiru erregistro ofizialetan inskribaturik dauden enpresak (Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofiziala, EAEko Enpresa Sailkatuen Lizitatzaileen Erregistro Ofiziala edo Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitatzaileen Erregistro Ofiziala) ez dira behartuta egongo erregistrootan eguneraturik dauden datuak ematera, baldin eta hala dela adierazten badute EKAB agiriaren inprimaki normalizatuan.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

Enpresen gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko baldintzek, goraxeago aipatuek, indarrean egon behar dute eskaintzak aurkezteko azken egunean, eta beren horretan iraun behar dute kontratua burutzeko orduan ere.

Edozelan ere, EBAK agiria aurkezteak konpromiso bat ekarriko du berekin lizitatzailearentzat; alegia, kontratuaren adjudikazio-proposamena beraren aldeko izanez gero, agiri horren ordezkatzen dituen dokumentuak aurkeztuko dituela.

2. Erantzukizunpeko adierazpena, non enpresa lizitatzaileak adierazten duen betetzen dituela kontratazio hau arautzen duten baldintza-agirietan ezartzen diren baldintzak, eta onartzen dituela baldintza-agirion onarpenak berekin dakartzan konpromisoak. Hori 2. ERANSKINAri jarraituz egin behar da.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, enpresa bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du.

3. Aldi baterako enpresa-elkarteek, beste agiri batean, adierazi behar dituzte elkarteko kide bakoitzaren izena eta inguruabarrak, bai eta bakoitzak duen partaidetzaren ehunekoa ere; horrez gainera, kontratuak indarrean dirauen artean Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean elkartearen ordezkaritza osoa izango duen pertsona izendatu behar dute. Eta, beste alde batetik, konpromisoa hartuko dute formalki aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko baldin eta kontratuaren adjudikaziodun suertatzen badira. Horretarako, 8. ERANSKINA hartuko dute eredutzat: "ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOA".

4.- Talde bereko enpresen zerrenda.— Eskaintza bat baxuegia dela xedatzeko, sozietate-talde bateko kide diren pertsona juridikoen kasuetan, enpresa lizitatzaileek taldeko partaide diren sozietateen zerrenda aurkeztu beharko dute, 2. ERANSKINAren arabera.

5. Atzerriko enpresek, baldin eta kontratua Espainian gauzatuko bada, eta kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, adierazpen bat aurkeztu behar dute, non jakinaraziko duten Espainiako mota guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzen direla eta uko egiten diotela lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioko foruari, kasua hori bada.

6.- Behin-behineko bermea eratu dela egiaztatzeko agiria, baldin eta plegu honen karatulako "J" atalean (BEHIN-BEHINEKO BERMEA) halakorik eskatzen bada.

Berme hori Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera eratuko da. Haren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten da, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen duena.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, behin-behineko bermeak enpresa parte-hartzaile batek edo batzuek era ditzakete, betiere berme horiekin guztiekin eskatzen den kopurua lortzen bada eta berme solidarioa ematen bazaie aldi baterako elkartea eratzen duten guztiei.

7.4.3.3.- "B" GUTUN-AZAL elektronikoan (automatikoki kuantifikatu daitezkeen irizpideei buruzko agiriak), honako dokumentazio hau sartu behar da:

Automatikoki kuantifikatu daite(z)keen irizpideari/irizpideei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Baldintza-agiri honen karatulako "I.1" atalean zehazten dira (AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITE(Z)KEEN IRIZPIDEA/K).

Eskaintzak isilpeko edukiak baditu, artxibo bereizietan banakatu beharko da. Halakoetan, ISILPEKOA hitzarekin hasi behar da artxiboaren izena. Eskaintza ekonomikoa ezin da inoiz isilpekoa izango.

Nolanahi ere, eskaintza ekonomikoak honako baldintza hauek bete behar ditu:

a) Partida bereizi legez jasoko du ezarri beharreko Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

b) 1. ERANSKINA eredutzat hartuta beteko da (ezingo du inoiz lizitazio-aurrekontua baino handiagoa izan), sinatu eta data jarriko zaio.

c) Ondorio guztietarako, aurkeztu den eskaintzak honako hauek guztiak jasotzen dituela ulertuko da: prestazioaren zenbatekoa, gastu egozgarriak, beste kostu batzuk, eta aseguruak, aduana-zergak, lizentziak eta baimen guztiak.

7.4.3.4.- "C" GUTUN-AZAL elektronikoan, honako dokumentazio hau sartu behar da (automatikoki kuantifikatu ezin daite(z)keen irizpideari/irizpideei buruzko agiriak):

Automatikoki kuantifika **ezin** daite(z)keen irizpideari/irizpideei buruzko dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute. Karatulako "I.2" atalean zehazten da dokumentazio hori (AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DAITE(Z)KEEN IRIZPIDEA/K).

Eskaintzak isilpeko edukiak baditu, artxibo bereizietan banakatu beharko da. Halakoetan, ISILPEKOA hitzarekin hasi behar da artxiboaren izena.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

Azpikontratazioen kasuan, lizitatzaileek kontratuaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duten zehaztu behar dute eskaintzan. Kontratuaren zati horren zenbatekoa ere adierazi behar dute, eta azpikontratistaren izena edo enpresa-profila ere eman behar dute, kaudimen profesional edo teknikoen baldintzen arabera zehaztua.

7.4.3.5.- Erreferentzia teknikoak

Baldintza teknikoen agirian beren-beregi aipatzen diren beste dokumentu guztiak gehitu beharko ditu lizitatzaileak, haien bitartez egiaztatu ahal izan dadin eskaintzak betetzen dituela eskatu arren baloratuko ez diren zehazpen teknikoak. Erreferentzia teknikoak "C" gutun-azal elektronikoan sartu behar dira, gutun-azal horretan aurkeztea eskatzen bada, eta, hala egiten ez bada, "B" gutun-azal elektronikoan.

7.5.- Enpresa lizitatzailearen ondorengoa izatea prozeduran.

Prozedura baten tramitazioan zehar (eta kontratua formalizatu aurretik) enpresaren batean bat-egitea edo bereizketa gertatzen bada edo enpresa-ondarearen nahiz jarduera-adar baten eskualdatzea, orduan enpresa lizitatzailearen ondorengo izango dira, lizitazio-prozeduran, sozietate xurgatzailea, bategitearen ondorioz sortua, bereiztearen onuraduna edo enpresa-ondarea nahiz jarduera-adarra eskuratzen duena, baldin eta gaitasun-baldintzak betetzen baditu, kontratatzeko debekurik ez badu eta kaudimen nahikoa egiaztatzen badu, administrazio-klausula partikularren agiri honen karatulan adjudikazio-prozeduran parte hartu ahal izateko eskatzen den moduan.

Aldi baterako enpresa-elkarteei dagokienez, berriz, SPKLren 69.8 artikuluan ezartzen dena beteko da.

7.6. Eskaintzen ebaluazioa.

7.6.1. Organo eskuduna.

Kontratazio Mahai Nagusia: Bizkaiko Foru Aldundiko kontratazio-organoei laguntza teknikoa espezializatua emateko kide anitzeko organoa da eta eskumena du Ahaldun Nagusiaren Kabineteak eta foru sailek sustatzen dituzten kontratuak adjudikatzeko prozeduretan eskaintzak ebaluatzeko, kontratu horiek Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Kontratazio Zerbitzuaren bitartez izapidetzen direnean. Halaber, bere eginkizunak beteko ditu lizitazio-prozeduran zehar, hau da, eskaintzak edo proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik kontratua adjudikatu arte, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen indarreko legeak eta haren osagarri diren xedapenek ematen dizkioten eskumenekin.

Osaera. - Kontratazio Mahai Nagusi iraunkorra mahaiburuak, hiru mahaikidek eta idazkari batek osatzen dute, eta, kide titularrak izendatu ez direnean, kanpoan edo gaixorik daudenean edo, oro har, arrazoi justifikaturen bat dagoenean, ordezkatu egingo dira. Hau izango da osaera:

- Mahaiburu titularra: Bizkaiko Foru Aldundiko Zerbitzuen eta Udal Harremanen zuzendariorde nagusia.

Ordezkoa hauetako edozein izango da: Funtzio Publikoaren zuzendariorde nagusia edo Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailean kontratazioaren arloko eskumena duen zerbitzuko burua.

- Mahaikide titularra: Kontratua sustatu duen foru sailean edo Ahaldun Nagusiaren Kabinetean kontratazio-espedienteak izapidetzeko eskumena duen zerbitzuko burua.

Ordezkoa hauetako edozein izango da: kontratua sustatu duen foru sailean kontratazio-espedienteak izapidetzeko eskumena duen zerbitzuko edozein ataletako burua edo zerbitzu horri atxikitako goi-mailako teknikari bat.

- Aholkularitza juridikoa ematea dagokion mahaikide titularra: Bizkaiko Foru Aldundiko Kontratazio Zerbitzuko burua.

Ordezkoak: Kontratazio Zerbitzuko edozein ataletako burua.

- Ekonomiaren eta aurrekontuen arloko kontrola egitea dagokion mahaikide titularra: Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuko burua.

Ordezkoa hauetako edozein izango da: Fiskalizazioa Zerbitzuko Gastuak Fiskalizatzeko Ataleko burua edo Fiskalizazio Zerbitzuan ekonomiaren eta aurrekontuen arloko kontrola egiteko funtzioa duen goi-mailako teknikari bat.

- Idazkari titularra: aztertu beharreko gaiaren adjudikazio-espedientea izapidetzeko ardura duen Kontratazio Zerbitzuko ataleko burua.

Ordezkoak: Kontratazio Zerbitzuko beste edozein ataletako burua edo zerbitzu horri atxikitako goi-mailako teknikari bat.

Mahaikide guztiek izango dute hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea, idazkariak izan ezik, hitz egitekoa baino ez baitu izango. Mahaiaren bileretara, aztertu beharreko gaia dela eta, beharrezkoak diren funtzionarioak edo aholkulariak joaten badira, hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez botoa ematekoa.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

Eraketa. - Kontratazio Mahai Nagusia balio osoz eratzeko, beharrezkoa izango da kideen gehiengo osoa egotea eta, betiere, mahaiburua, idazkaria, aholkularitza juridikoa eginkizun duen mahaikidea eta ekonomiaren eta aurrekontuaren arloko kontrola egitea dagokion mahaikidea egotea.

Kontratazio Mahai Nagusiaren bilerak urrutiko bilkura bidez egin daitezke, betiere hauek bermatzen badira: kideen identitatea, adierazpenen edukia, adierazpenak egiten diren unea, kideen arteko elkarrekintza eta interkomunikazioa denbora errealean eta bilkuran zehar behar diren bitartekoak. Aurreko guztia bitarteko elektronikoen bidez bermatuko da.

Erabakiak hartzea. - Kontratazio Mahai Nagusiaren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, eta, balioa izan dezaten, ezinbestekoa izango da une bakoitzean mahaiko kideen gehiengo osoa bileran izatea.

7.6.2.- Proposamenak irekitzea

7.6.2.1.- Proposamenak irekitzea

Proposamenen gutun-azala irekitzeko epea hogei egun izango da gehienez ere, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita.

"B" gutun-azal elektronikoak jendaurreko ekitaldian irekiko dira, eta kontratatzailearen profilean iragarkia jarriz jakinaraziko dira ekitaldi horren modalitatea (aurrez aurrekoa edo urrunekoa), lekua, data eta ordua.

Kontratazio Mahaiak, kontratazio-organoaren baimenarekin eta bere proposamena egin aurretik, beharrezko irizten zaizkion txosten tekniko guztiak eska ditzake. Halaber, eskaintzek pleguetan ezarritako espezifikazio teknikoak betetzen dituztenetz egiaztatu behar denean ere eskatu ahal izango dira txosten horiek.

Behean zerrendatzen diren Kontratazio Mahai Nagusiaren jarduketen akta egin beharko da, eta akta horiek mahaiaren idazkariak sinatuko ditu, mahaiburuaren oniritziarekin.

7.6.2.2.- "A" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA

Lehenengo eta behin, Kontratazio Mahai Nagusia behar bezala deitu eta eratuko da, eta mahaiburuak aginduko du saio pribatu batean ireki daitezela "A" GUTUN-AZAL elektronikoak (aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa), eta lizitatzaileek garaiz eta forma egokian aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko du. Era berean, egiaztatuko du ea gutunetan jasota dauden baldin-agiri honetan aipatzen diren dokumentu, adierazpen eta erantzukizunpeko adierazpenak.

Mahaiak ikusten badu badirela aurkeztutako dokumentazioan akats konpongarriak edo aurkeztu gabeko agiriak, horiek zuzentzeko izapidea bideratuko du. Horretarako, kontratatzailearen profilean argitaratuko du zuzentzeko errekerimendua, hargatik eragotzi gabe horiek konpontzeko egoki ikusten dituen beste bide batzuk ere erabiltzea. Dokumentazioan diren akatsak konpontzeko, **hiru (3) eguneko epea** emango da, gorago aipaturiko kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

7.6.2.3.- "C" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA (**automatikoki kuantifika EZIN daitezkeen** edo balio-judizio baten arabera kuantifikatzekoak diren irizpideak daudenean)

Kontratazio Mahaia bilkura pribatuan eratuko da, eta, behin aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko aurkeztutako agirien akatsak eta aurkeztu gabekoen arazoak konpondu ondoren (hala dagokionean), dokumentazioa ebaluatuko du. Horren ostean, beren-beregi adieraziko du zein enpresa onartzen den lizitaziorako, zein ez den onartzen eta zergatik ez diren onartuak izan.

Jarraian, bilkura pribatu berean, mahaiburuak aginduko du ireki eta azter daitezela onarturiko enpresa lizitatzaileen "C" GUTUN-AZAL elektronikoak.

Ondoren, gutun-azalak espedientea sustatu duen sailaren esku jarriko ditu, aztertzeko eta dagozkion irizpideak haztatzeko. Izan ere, helburua da erabakitzea zein den Aldundiarentzat eskaintzarik onena. Halaber, egoki irizten zaizkion txosten tekniko guztiak eskatu ahalko ditu proposamenak balioesteko.

Horrek ez du eragotziko, ordea, SPKLren 146.2 a) artikuluan aipatzen diren adituen batzordeak edo erakunde tekniko espezializatuak parte hartu ahal izatea, artikulu berean aurreikusten diren kasuetan.

Lizitazio-prozeduratik kanpo geratuko dira geroago ebaluatzekoa den dokumentazioa "C" GUTUNAZAL elektronikoan sartzen duten lizitatzaileak (agiriok "B" GUTUN-AZAL elektronikoa irekitzean aztertzekoak baitira).

7.6.2.4.- "B" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA:

a) **Zenbait adjudikazio-irizpide** ezarri diren kasuetan (direla **automatikoki kuantifika daitezkeenak**, direla **automatikoki EZIN kuantifika daitezkeenak**), honela jokatuko du Kontratazio Mahaiak:

Kontratazio Mahai Nagusiaren idazkaritzak eskatutako txostena(k) jasotzen d(it)uenean, automatikoki kuantifikatu **ezin** daitezkeen irizpideak haztatzeko, Mahaia osatuko da, eta, ekitaldi publiko batean, honako hau jakinaraziko du: lehenik eta behin, zein lizitatzaile onartzen diren lizitaziorako, zein ez den onartzen eta ez

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

onartzeko arrazoiak; eta, bigarren, automatikoki kuantifikatu **ezin** daitezkeen irizpideei buruzko eskaintzei emandako haztapena.

Lizitaziorako eskatzen diren baldintza teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak ez dira balioetsiko, eta prozeduratik kanpo geratuko dira.

Jarraian, "B" GUTUN-AZAL elektronikoak irekiko dira (automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideen dokumentazioa), eta eskaintza ekonomikoak irakurriko. Baldintza-agiri honen karatulan adierazten diren irizpideen arabera ebaluatuko da gutun-azal elektronikootan jasotako dokumentazioa.

Ekitaldi hori egin eta hurrengo egunetik zenbatuta, bi (2) egun balioduneko epea emango da, ekitaldian izan diren lizitatzaileek ekitaldiari buruz egoki ikusten dutena idatziz adieraz dezaten.

b) **Automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideak** bakarrik ezarri diren kasuetan, Mahaia eratuko da, eta, jendaurreko egintza batean, jakinaraziko du zein lizitatzaile onartu diren, zein baztertu eta zergatik baztertu diren; gero, B GUTUN-AZAL elektronikoak irekiko dira, goiko a) kasuan azaldu den modura berean.

7.6.2.5.- Kontratazio Mahai Nagusiaren egintzen emaitza publiko egitea.

Kontratazio Mahai Nagusiak kalifikazioen, onarpenen eta bazter utzitakoen gainean egiten dituen akta guztiak publikatuko dira kontratatzailearen profilean, profila iragarki-taula gisa erabiliko baita.

7.6.2.6.- Eskaintza baxuegiak.

SPKLren 149. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko da zein diren eskaintza baxuegiak. Kontratazio-organoak sumatzen badu eskaintza bat ez dela bideragarria aurkeztu den moduan baxuegia delako, lizitazio-prozeduratik hura baztertu ahal izateko, aurretiaz 149. artikuluan ezartzen den prozedura izapidetu beharko du nahitaez.

Adjudikazio-irizpide bakarra prezioa denean, baldin eta baldintza-agiriak beste zehaztapen modu bat aurreikusten ez badu, eskaintza bat baxuegia dela zehazteko, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. eta 86. artikuluetan horrexetarako jasotzen diren arauak aplikatuko dira, harik eta SPKLren Erregelamendua onartu eta indarrean sartu arte.

Zenbait adjudikazio-irizpide erabiltzen direnean, berriz, jarraitu behar zaio baldintza-agiri honen karatulako "I" atalean ezartzen denari (ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK), han ezartzen dira-eta zenbait parametro objektibo modua ematen dutenak identifikatzeko noiz ez den eskaintza bat normala, eskaintza bera osorik kontuan hartuta.

Talde bereko kide diren enpresek nork bere eskaintzak aurkezten badituzte (Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluaren arabera ulertuz talde berekoak direla), haietariko baxuena bakarrik hartuko da kontuan ustez baxuegiak diren eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko orduan. Horretarako, ez da kontuan hartuko eskaintza bakarka aurkeztu duten edo taldekoak ez diren baina aldi baterako elkartea osaturik haiekin batera datozen beste enpresa batekin edo batzuekin aurkeztu duten.

Kontratazio Mahai Nagusiakak ustez normalak ez diren eskaintza bat edo batzuk identifikatzen dituenean, errekerimendua egin beharko die eskaintzok aurkeztu dituzten lizitatzaileei, eta nahikoa epea eman, modu arrazoituan eta zehaztasunez justifika eta xeha dezaten prezioen edo kostuen maila baxua, edo beste edozein parametro, eskaintza ez-normaltzat jotzeko oinarritzat erabili dena. Justifikazio-xehetasunok emateko, egoki diren informazioa eta agiriak aurkeztuko dituzte errekerimendua jasotzen dutenak.

Kontratazio Mahai Nagusiak eskua izango du lizitatzaileei eskatzeko justifika ditzatela eskaintzaren prezio edo kostu baxuak zehazteko balio dezaketen baldintzak, eta, zehazki, honako balio hauek:

a) Zer aurrezpen-aukera ematen duten fabrikazio-prozedurak, emango diren zerbitzuek edo eraikuntza-metodoak.

b) Zer konponbide tekniko hautatuko dituen eta zer baldintza guztiz mesedegarri dituen produktuak hornitzeko, zerbitzuak emateko edo obrak egiteko.

c) Produktuak hornitzeko, zerbitzuak emateko eta obrak egiteko proposatzen dituen konponbideen berrikuntza eta originaltasuna.

d) Ingurumen-, gizarte- eta lan-arloan bete beharreko baldintzak betetzea, ezingo baita justifikatu merkatuen azpitik dagoen preziorik edo SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa urratzen duenik.

e) Edo, besterik gabe, estatu-laguntzarik lortu duen.

Prozeduran zerbitzu eskudunaren aholkularitza teknikoa eskatu beharko da.

Kontratazio-organoek atzera botako dute eskaintza bat, ikusten badute baxuegia dela urratzen duelako azpikontratazioari buruzko araudia edo ez dituelako betetzen ingurumen-, gizarte- nahiz lan-arloan aplikatzekoak diren betebeharrak (estatukoak zein nazioartekoak), barnean harturik sektore bakoitzean indarrean dagoen hitzarmen kolektiboa ez betetzea, hala ezarrita baitago SPLKren 201. artikuluan.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

Kontratazio Mahai Nagusiak, lizitatzaileak epearen barruan aurkezten duen informazio eta dokumentazio guztia aztertu, eta kasuan-kasuan dagokion onarpen- edo baztertze-proposamena igorriko dio, arrazoiturik, kontratazio-organoari. Inoiz ere ez da erabakiko eskaintza bat onartzea Kontratazio Mahai Nagusiak onarpen-proposamena arrazoitu gabe.

Kontratazio-organoak, kontuan hartuta lizitatzailearen justifikazioa eta gorago aipaturiko txostenak, uste badu ordura arte jasotako informazioak ez duela behar bezala azaltzen lizitatzaileak proposaturiko prezioen edo kostuen maila baxua, eta, beraz, eskaintza ezin gauzatuzkoa dela balio anormalak direla-eta, sailkapenetik kanpo utziko du, eta eskaintzarik onenaren aldeko adjudikazioa onartuko du. Oro har, ezetsi egingo dira ustez anormalak diren eskaintzak, baldin eta funtsean hipotesi edo jardunbide ezegokiak badituzte ikuspegi tekniko, ekonomiko eta juridiko batetik.

Kontratuaren adjudikazioduna ustez anormalak diren eskaintzak egin dituen enpresa bat bada, kontratuaren arduradunak mekanismo egokiak ezarriko ditu kontratuaren gauzatzearen jarraipen xehatua egiteko, kontratua zuzen gauzatzen dela bermatzeko, kontratatutako zerbitzu, obra edo horniduren kalitatea gutxitu gabe.

8.- KONTRATUA ADJUDIKATU, FORMALIZATU ETA HAREN PUBLIZITATEA EGITEA.

8.1.- Orokorra edo aurretikoa.

Enpresa adjudikazioduna hautatzeko ezarri behar diren irizpideak ebaluatuta, Kontratazio Mahai Nagusiak adjudikazio proposamena egingo dio kontratazio organoari.

Adjudikazio-proposamenak ez dio inolako eskubiderik sortuko proposaturiko enpresa lizitatzaileari Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean. Nolanahi ere, kontratazio-organoak ez badu kontratua proposamenaren arabera esleitzen, arrazoitu egin beharko du erabakia. (157.6)

8.2.- Adjudikazioa.

8.2.1.- Eskaintzak sailkatzea.

Kontratazio Mahai Nagusiak beheranzko hurrenkeran sailkatuko ditu aurkeztutako proposamenak, kanpoan utzirik SPKLn xedatutakoaren arabera baxuegitzat jo direnak. Sailkapen hori baldintza-agiri honetan adierazten diren adjudikazio-irizpideen arabera egingo du, eta, horretarako, egokitzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu. Kontuan hartzeko irizpide bakarra prezioa denean, eskaintza ekonomikorik onena preziorik baxuena duena dela joko da.

8.2.2.- Berdinketak hausteko irizpideak.

Adjudikazio-irizpideak aplikatu eta berdinketa baldin badago eskaintza biren edo gehiagoren artean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 147. artikuluan aipatuko diren irizpide aplikatuko dira, berdinketa hausteko.

Berdinketak hausteko irizpideak egiaztatzeko dokumentazioa berdinketa gertatzen den unean aurkeztu beharko dute lizitatzaileek, eta ez aurretik. Baldintzak betetzen ote diren zehazteko unea, edozelan ere, proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango da.

8.2.3.- Kontratua adjudikatu gabe uztea.-

Ezingo da utzi adjudikatu gabe lizitazio bat, baldin eta baldintza-agiri honetan ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

8.2.4.- Eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa.-

Dokumentazioa aurkezteko, hamar egun balioduneko epea dago, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta. Hona aurkeztu beharrekoak:

8.2.4.1. Kontratatzeko betekizunei buruzko frogagiriak:

Enpresen gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ezari buruzko baldintzak, denak batera bete beharko dira eskaintzak aurkezteko azken egunean, eta beren horretan jarraitu behar dute kontratua burutzeko unean.

1.- Jarduteko gaitasuna egiaztatzeko agiriak, jarraian adierazten diren kasuen arabera:

a) Pertsona fisikoa: Proposamena egiten duen pertsonaren NANa edo haren ordezko dokumentu fede-emailea.

b) Pertsona juridikoa: eraketa-eskritura edo -agiria, estatutuak edo eraketa-egintza. Agiri horietan jasota geratu behar da pertsona juridiko horren jarduna zein arauren arabera erregulatuko den, eta agiri horiek guztiak behar bezala erregistratu behar dira pertsona juridiko bakoitzari dagokion erregistro publikoan.

c) Aldi baterako enpresa-elkarteak: kide bakoitzak gaitasuna, izaera, ordezkaritza eta kaudimena egiaztatuko ditu.

Elektronikoki sinatutako dokumentua, 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

d) Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko estatu kideetako enpresak: enpresak errotuta dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan izena emanda daudela egiaztatzen duen agiria (Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 1. eranskina), zinpeko deklarazioa edo ziurtagiria aurkez dezakete, aplikatzekoak diren Batasuneko xedapenen arabera. Halaber, enpresak kokatuta dauden estatuko legeriak eskatzen baldin badu enpresa horiek dagokien zerbitzua emateko baimen berezia behar dutela edo erakunde jakin bateko kide izan behar dutela, orduan, betekizun hori betetzen dutela egiaztatu behar dute.

e) Europar Batasuneko kide ez diren estatuetako pertsona fisikoak edo juridikoak: Espainiak estatu bakoitzean duen Diplomaziako Ordezkaritza Iraunkorrak edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko kontsuletxeko bulegoak emandakoa. Halaber, aurkezten den dokumentazioarekin batera beste agiri bat ere aurkeztu behar da, eta agiri horren bidez egiaztatu behar da, hain zuzen ere, atzerriko enpresen jatorrizko estatuak onartzen duela Espainiako enpresek delako estatu horretako Administrazioarekiko kontratazioetan parte hartzea, funtsean berdintsua den moduan. Arauketa harmonizatuaren pean dauden kontratuetan ez da elkarrekikotasunari buruzko txostena aurkeztu behar, baldin eta hitzarmena Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa izenpetu duten estatuetako enpresekin sinatzen bada.

2. Ordezkaritza egiaztatzeko dokumentuak. - Beste baten izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek ordezkaritza-ahalordea aurkeztu behar dute.

Era berean, ordezkaritzarako ahalorde askietsia duen pertsonak Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztu behar du, edo, bestela, agiri hori ordezkatzen duen beste dokumentu bat.

3.- Kontratuaren xede den prestazioa egiteko gaikuntza enpresariala edo profesionala. Kasuan kasuko kontratuaren xede den prestazioa egiteko gaikuntza enpresariala edo profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, baldin eta kontratua egiteko baldintza gisa legez galda badaiteke.

4.- Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa nahiz profesionala egiaztatzeko dokumentazioa. Plegu honen karatulako "T" (KAUDIMENA) atalean ezartzen denaren arabera.

Orobat egiaztatu beharko du, frogagiri bidez, badituela benetan kontratua exekutatzeko beharrezko giza baliabideak eta/edo baliabide materialak —baldintza-agiri honen karatulako "T" apartatuan aipatuak (KAUDIMENA)—, adjudikaziodun gisa proposaturiko lizitatzaileak aurretiaz adierazia baitu haien jabe dela kontratua exekutatu ahal izateko.

Kaudimena egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kanpo-bitartekoak baliatuz gero (SPKLren 75. art.), kaudimena ematen duen enpresaren zuzendaritza-organoak emaniko idazki bat aurkeztu behar da (ziurtagiria), non konpromisoa hartzen duen, idatziz, kaudimen hori emateko.

Kontratuak indarrean dirauen bitartean, adjudikaziodunak kaudimena egiaztatzeko aurkezturiko bitarteko berak izan behar ditu. Kaudimen baliokidea egiaztatzen duten beste bitarteko batzuez bakarrik ordezka daitezke, arrazoi ezin aurreikusiak direla medio, eta Administrazioak dagokion baimena emanik.

5.- Kalitatearen bermeari eta ingurumen-kudeaketari buruzko arauak bete beharra. Baldintza-agiri honen karatulako "T" apartatuan aurreikusita badago (KAUDIMENA), lizitatzaileak apartatu horretan aipatzen diren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, eta egiaztatu beharreko kaudimen-irizpide gisa erabiliko dira.

6.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak nahiz beste betebehar batzuk egunean izateari buruzko ziurtagiriak eta/edo txostenak. Egunean izatea indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Enpresa lizitatzailea aldi baterako enpresa-elkartea bada, enpresa parte-hartzaile bakoitzaren ziurtagiriak eta erantzukizunpeko adierazpenak aurkeztu behar dira.

Interesdunak proposamena aurkezten duenean kontratazio-prozedura honetan lehiatzeko, orduan aurkezte horrek dakar Kontratazio Zerbitzuaren organo kudeatzailearen baimena ematea, zertarako eta Bizkaiko foru-ogasuneko organoek, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak ematen dituzten ziurtagiriak edota txostenak jasotzeko, zeinak zerga- eta gizarte-betebeharrei buruzkoak diren; horregatik, ez da beharrezkoa izango enpresak, adjudikaziodun gisa proposatzen bada, agiri horiek ekartzea.

7.- Ekonomia-jardueren gaineko Zergaren peko jardueretan diharduteneanen: Kasuan-kasuan dagokion uneko ekitaldiko alta-agiria edo azken ordainagiria, eta, hori osatzeko, aipatu zergaren matrikulan baja emanda ez dagoela ziurtatzeko erantzukizunpeko adierazpena (AKPAren 7. ERANSKINA). Zerga horretatik salbuetsita egonez gero, zerga horren matrikulan baja eman ez duela egiaztatzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du, eta zein salbuespen-kasutan dagoen adierazi. (7. ERANSKINA)

Interesdunak proposamena aurkezten duenean kontratazio-prozedura honetan lehiatzeko, orduan aurkezte horrek dakar Kontratazio Zerbitzuaren organo kudeatzaileari baimena ematea, zertarako Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Ogasuneko organoek ematen dituzten ziurtagiriak edota txostenak jasotzeko.

Elektronikoki sinatutako dokumentua, 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

Enpresa lizitatzailea aldi baterako enpresa-elkartea bada, enpresa parte-hartzaile bakoitzarena aurkeztuko da.

8.- Behin betiko bermea eratu dela ziurtatzen duten agiriak, halakorik eratu behar bada. Behin betiko bermea eskatzen bada, berme hori eratu dela egiaztatzeko dokumentazio aurkeztu beharko da.

Aldi baterako enpresa-elkarteak direnean, enpresa parte-hartzaileen sozietate-izenak eta IFZ zenbakiak zehaztu behar dira. Berme hori enpresa parte-hartzaile batek edo batzuek eratu dezakete, betiere berme horiekin guztiekin eskatzen den kopurua lortzen bada eta berme solidarioa ematen bazaie aldi baterako enpresa-elkartea eratzen duten guztiei. (Administrazio-klausula partikularren agiriko 4, 5 edo 6. ERANSKINAK).

9.- ABEE formalizatzeko eskritura publikoa. Enpresa lizitatzailea aldi baterako enpresa-elkarte bat bada, elkarte hori eratzeko eskritura publikoa aurkeztu behar du.

10. Polizaren kopia eta kontratatutako aseguru-primaren ordainagiria, agiri honetan eta/edo baldintza tekniko berezien agirian adierazitako moduan.

11. Datu pertsonalen tratamendua egin behar bada: adierazpen bat egin beharko da, zeinean agerian jarriko baita zein lekutan egongo diren zerbitzariak eta zein lekutatik emango diren kontratuei lotutako zerbitzuak, betiere agiri honen 9.9.2 puntuan xedatutakoaren arabera.

8.2.4.2. Dokumentazioa osatzea.

Adjudikaziodun gisa proposatzen den lizitatzaileak aukera izango du dokumentazioan falta direnak aurkezteko edo osatu gabe daudenak osatzeko, kontratua adjudikatu aurretik. Hiru (3) egun balioduneko epea emango zaio. Ez bada ondo betetzen galdaturik dokumentazioari buruzko errekerimendua, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza; orduan, lizitazioaren oinarrizko-aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZa barne), zigor gisa. Lehenik, behin-behineko bermearen kontra kobratuko da zenbateko hori (bermea eratu bada), eta, gero, hurrengo lizitatzaileari eskatuko zaio dokumentazio bera, eskaintzak sailkaturik geratu diren hurrenkeraren arabera.

Adjudikaziodun izateko proposaturiko lizitatzaileak ez badu epearen barruan betetzen eskaturiko dokumentazioari buruzko errekerimendua —doloa, errua edo zabarkeria dela medio—, kontratatzeko debekuan deklaratu ahalko da, SPKLren 71.2 a) artikuluan ezartzen denaren arabera. Beste alde batetik, kontratatzeko debekuan eroriko da [SPKLren 71.1.e) artikuluan ezartzen denarekin bat], baldin eta datu faltsuak eman baditu bere gaitasunari, ordezkaritzari edo kaudimenari buruzko erantzukizunpeko adierazpenak egitean.

8.2.4.3. Lizitatzaileen erregistro baten ZIURTAGIRIA baliatuz egiaztatzea.

Gorago aipaturiko inguruabarretako zenbait betetzen direla egiaztatzeko agirien ordez (jarduteko gaitasuna egiaztatzeko dokumentazioa, ordezkaritza, Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiri positiboak, 7. ERANSKINAren araberako erantzukizunpeko adierazpena...), honako erregistro hauetako edozeinek emandako ZIURTAGIRIA aurkez daiteke:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoko Lizitatzaileen Erregistroak emandako ziurtagiria;

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak emandako ziurtagiria;

c) Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialak (hala badagokio) emandako ziurtagiria, edo

d) Sailkapenari buruzko Batasuneko ziurtagiria.

Kontratazio Zerbitzuaren organo kudeatzaileak ofizioz eskatuko ditu ziurtagiri horiek, betiere, ziurtagiriok lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena beharko dute, eta bertan adieraziko da ziurtagirian islatzen diren inguruabarretan ez dela aldaketarik egon. (3. ERANSKINA)

Dagokion erregistroak emandako ziurtagirian jasotzen ez diren inguruabarrak direla eta, eskatzen diren frogagiriak erantsi behar dira.

8.2.5.- Adjudikatzeko epea.

Kontratazio-organoak kontratua adjudikatzeko epea bost egun baliodunekoa izango da, dokumentazioa jaso eta biharamunetik aurrera.

Kontratuaren adjudikazioduna aukeratzeko irizpide bakarra prezioa bada, gehienez, egutegiko hamabost egun egongo dira eskaintza ekonomikoak jendaurrean ireki eta biharamunetik aurrera.

Kontratua adjudikatzeko zenbait irizpide hartu behar direnean kontuan, edo bakarra erabili arren irizpide hori bizi-zikloan kosturik txikiena duena bada, orduan adjudikaziorako epea bi hilabete izango da gehien jota, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, salbu eta besterik ezarri ez bada baldintza-agiri honen karatulan.

Goiko ataletan aipatzen diren epeak hamabost egun baliodunez luzatuko dira beharrezkoa bada SPKLren 149. artikuluaren 4. zenbakian aipatzen diren izapideak egitea; alegia, eskaintza baxuegiei buruzkoak.

Adjudikazioa ez bada egiten goian aipaturiko epeen barruan, enpresa lizitatzaileek eskubidea izango dute beren proposamena erretiratzeko eta jarri duten behin-behineko bermea jasotzeko, halakorik jarri badute.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

8.2.6.- Enpresa lizitatzaileei adjudikazioa jakinaraztea eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.

Kontratazio-organoak ebazpen arrazoitu baten bidez erabakiko du adjudikazioa, eta enpresa lizitatzaileei jakinaraziko die. Horretarako, kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 eguneko epean.

Jakinarazpenean adieraziko da zein epetan formalizatu behar den, SPKLren 153. 3 artikuluaren arabera.

Jakinarazpena Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agerraldi-sistema erabiliz egingo da. https://www.ebizkaia.eus/es/inicio#

Jakinarazpen eta komunikazioak egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egiteko, interesduna edo haren ordezkaria sartuko da Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan horretarako diseinatutako apartatuan eskuragarri jarritako jakinarazpen edo komunikazioaren edukira; horretarako, identifikatu edo sinatzeko onartutako sistema elektronikoren bat erabili beharko du aurretik.

Interesdunak edo bere ordezkariak jakinarazpenaren edukira sartzen denean joko da egindakotzat –lege-ondorio guztietarako– Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez eginiko jakinarazpen elektronikoa.

Ziurra bada jakinarazpena Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri jarri dela, jasotzailea ez bada sartzen jakinarazpenaren edukira 10 egun naturaleko epean, ulertuko da jakinarazpena ezetsia izan dela. Orduan, izapidea egintzat jo, eta prozedurak aurrera jarraituko du, salbu eta legez nahiz foru-arau bidez beste eperik ezartzen ez bada.

8.2.7.- Bizkaiko Foru Aldundiak kontratua ez adjudikatzeko edo egiteko erabakia hartzea eta adjudikazio-prozeduran atzera egitea.

Bizkaiko Foru Aldundiak kontratua ez adjudikatzeko edo egiteko erabakia hartzeari eta adjudikazio-prozeduran atzera egiteari dagokionez, SPKLren 152. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Interes publikoaren arrazoiengatik bakarrik erabaki ahal izango da kontratua ez adjudikatzea edo ez egitea, eta arrazoiok behar bezala justifikatu behar dira espedientean. Prozeduran atzera egiteko, kontratua prestatu edo adjudikazio-prozedura arautzeko arauetan zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat egon behar du, eta espedientean justifikatu beharko da atzera egiteko arrazoia.

Kontratazio-organoak kontratua formalizatu aurretik hartu ahal izango du erabakia kontratua ez adjudikatu edo egiteko nahiz prozeduran atzera egiteko. Halakoetan, iragarkian edo baldintza-agirian ezartzen den moduan konpentsatuko dira lizitatzaileak ordura arte eginiko gastuengatik. Bestela, Administrazioaren ondare-erantzukizuna kalkulatzeko balioespen-irizpideak erabiliko dira, administrazio-prozedura erkidearen izapideen bitartez.

Kasu batean zein bestean, administrazio honek zehaztuko du lizitazioak lizitatzaileari eragin dizkion gastuen konpentsazioa; horretarako, aurretik entzunaldia eskainiko zaie lizitatzaileei eta gastuok justifikatu beharko dituzte. Hala eta guztiz ere, konpentsazio hori ezingo da inoiz izan HIRUREHUN (300,00) EURO baino gehiago.

8.3.- Kontratua formalizatzea.

Kontratua administrazio-dokumentu batean formalizatuko da. Agiri hori lizitazioaren baldintzei lotuko zaie, estu-estu, eta behar besteko titulua izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Dena den, kontratua eskritura publikoan jasotzea eska dezake kontratistak; horren ondorioz sortzen diren gastuak haren kontura izango dira.

Kontratua formalizatzeko epea:

- Kontratuaren aurka kontratazioaren arloko errekurtso berezirik aurkez badaiteke (SPKLren 44. artikuluaren arabera), ezingo da formalizaziorik egin harik eta hamabost egun baliodun igaro arte adjudikazioren jakinarazpena enpresa lizitatzaileei igortzen zaienetik.

  Kontratazio-organoak errekerimendua egingo dio adjudikaziodunari kontratua formalizatu dezan, gehieneko bost egun naturaleko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori hala izango da baldin eta aurreko paragrafoan zehazten den epea igaro bada kontratuaren formalizazioa eteteko errekurtsoa aurkeztu barik. Era berean jardungo du errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etetea kentzen badu.
- Gainerako kasuetan, kontratuaren formalizazioa enpresa lizitatzaileek adjudikazioa jasotzen dutenetik hamabost egun baliodunen barruan egin behar da.

Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik ez bada formalizatzen kontratua aipaturiko epearen barruan, lizitazioaren oinarrizko-aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZa barne), zigor gisa, eta zenbateko hori, lehenik, behin-behineko bermearen kontra kobratuko da (bermea eratu bada), hargatik eragotzi gabe 71. artikuluko 2. zenbakiaren b) letran ezartzen dena.

Esparru-akordioa ez formalizatzeko arrazoiak Bizkaiko Foru Aldundiari egoztekoak badira, berriz, berandutzeak eragindako kalte-galerengatiko kalte-ordaina emango zaio kontratistari.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

Kontratua formalizatu arte ezin izango da gauzatzen hasi, espedientearen izapidetzea presazkoa edo larrialdikoa denean izan ezik.

8.4.- Kontratuaren formalizazioa publiko egitea.

Kontratuen formalizazioa, kasuan kasuko kontratuarekin batera, publiko egin behar da, hura gauzatu eta hamabost egun eguneko epean gehienez ere, kontratazio-organoren kontratatzailearen profilean. Kontratua erregulazio harmonizatuaren mendean dagoenean, formalizazio-iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean ere publikatu beharko da. Iragarkiok aldizkari ofizial horretan ateratzekoak badira, ez da formalizazio-iragarkirik jarriko kontratatzailearen profilean harik eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu arte.

Kontratazio-organoak, hala dagokionean, kontratua formalizatu eta gehienez ere 10 egun geroago bidaliko du iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera.

9.- KONTRATUA GAUZATZEA.

9.1.- Kontratua betetzeko betebeharra.

Enpresa kontratistak galdu-gordean jardun beharko du kontratua exekutatzean.

Kontratua haren klausulen, administrazio klausula berezien pleguen eta preskripzio teknikoen pleguen arabera bete behar da, legediak herri-administrazioen alde ezartzen dituen eskumen guztiak gorabehera.

Egiten dituen lan, prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule izango da kontratista, baita Administrazioari zein hirugarrenei kontratua exekutatzean egindako omisio, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrek sortutako ondorioen erantzule ere.

Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du kontratuaren emaitza zuzen erabiltzeko beharrezkoak diren informazio osagarria eta aholkularitza teknikoa emateko (dokumentuak eta era guztietako informazioa).

9.2.- Administrazioaren eskumenak.

Kontratazio-organoak dauzka administrazio-kontratuak interpretatzeko eskumenak, baita kontratuok betetzean sortutako zalantzak ebazteko, interes publikoa dela-eta kontratuak aldatzeko, Kontratuaren exekuzioaren ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna deklaratzeko, kontratuok desegitea erabakitzeko zein azken horren ondorioak zehazteko ere.

Kontratazio-organoak hartzen dituen erabakiek amaitu egingo dute administrazio-bidea, eta berehala betearaziko dira.

9.3. Epea betetzea eta entregatzeko lekua.

Kontratistak kontratua gauzatzeko kontratu-agirian zehaztutako epearen barruan bete behar du kontratua, bai eta bata bestearen ondoren betetzeko zehaztutako epe partzialak ere.

Kontratista berandutze-egoeran dagoela jakiteko, Administrazioak ez dauka aurrez agindeirik egin beharrik.

Halaber, kontratuaren xede diren ondasunak baldintza-agiri honen karatulako "O" atalean (LANAK EGITEKO/ERAMATEKO LEKUA) adierazitako lekuan eman beharko ditu. Hala ere, kontratua gauzatzerakoan, Bizkaiko Foru Aldundiak eskubidea izango du ondasun horiek emateko beste leku bat ezartzeko, baina Bizkaiko Lurralde Historikoan betiere.

9.4. Exekuzio akastuna eta berandutzea.

9.4.1.- Gauzatze akastuna.

Kontratuaren xedea akatsekin bete bada, edo kontratua gauzatzeko konpromisoak edo SPKLren 76.2. eta 202.1. artikuluen arabera ezarri diren baldintza bereziak bete ez badira, orduan Administrazioak baldintza-agiri honen 9.9.2.2 atalean aurreikusitako zigorrak ezarri ahal izango ditu, bai eta baldintza-agiri honen karatulako “V” atalean zehazten direnak ere (BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK).

9.4.2.- Berandutzea.

Betetzean egon daitekeen berandutzea dela-eta, kasu bi daude:

a) Baldin eta kontratista, **berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio**, berandutu egin bada azken epea edo epe partzialak betetzeari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak aukera izango du kontratua suntsiarazteko nahiz zigorrak ezartzeko. Berandutze-kasu batean zein bestean (azkena/partzialak), egunero ezarriko dira zigorrak: 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko (BEZik gabe), baldin eta baldintza-agiri honen karatulan bestelako zigorrik ezarri ez bada.

Zigorrak betetzeko aukera bi daude: batetik, zigor horien zenbatekoa kendu egin daiteke kontratistari egin behar zaizkion ordainketa oso edo partzialetatik; bestetik, zigor hori bermetik ken daiteke, halakoa eratu bada eta zigor horien zenbatekoa ezin bada egin beharreko ordainketatik kendu.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

b) Baldin eta berandutzea **kontratistari egoztekoak ez diren** arrazoiengatik sortu bada, eta kontratistak esaten badu hasierako exekuzio-epea luzatuz gero bere konpromisoak beteko dituela, kontratazio-organoak beste epe bat emango dio: gutxienez lehen galdutako adina denborakoa, salbu eta kontratistak berak epe laburragoa eskatzen ez badu. Kontratuaren arduradunak txosten bat emango du, non zehaztuko den ea berandutzea kontratistari egoztekoak diren arrazoiengatik izan den ala ez.

9.5.- Kontratua gauzatzean hirugarrenei eragindako kalte-galerengatiko ordaina.

SPKLren 196. artikuluan ezartzen denari jarraituko zaio.

9.6.- Kontratuaren prezioa.

9.6.1.- Prezio zehatza.

Kontratuak beti izango du prezio zehatz bat, benetan exekutaturiko prestazioaren arabera ordainduko zaiona kontratistari, aurrez itundurikoaren arabera. Balio Erantsiaren gaineko Zergagatik ordaindu beharrekoa prezioaren zenbatekoak sarturik dagoela joko da, baina, nolanahi ere, partida bereizi gisa adierazita. Prezioa, oro har, eurotan adierazi behar da, hargatik eragotzi gabe beste kontraprestazio batzuen bitartez ordaintzeko aukera, hala aurreikusten den kasuetan.

9.6.2.- Prezioa ordaintzea.

Kontratistak eskubidea du eginiko prestazioagatik hitzartutako prezioa ordain dakion, kontratuan ezarritako baldintzen arabera.

Debeku da ordainketa geroratuak egitea, honako kasu hauetan izan ezik: kontratuak ordaintzeko, finantza-errentamenduaren sistema edo erosteko aukera ematen duen errentamendu-sistema erabiltzen denean, edo SPKLk edo beste lege batek berariaz horretarako baimena ematen duenean.

Administrazioarekiko kobratzeko eskubidea daukaten kontratistek laga egin dezakete eskubide hori, zuzenbidearen arabera. Kobratzeko eskubidearen lagapena Bizkaiko Foru Aldundiarekiko eraginkorra izan dadin, ezinbesteko betekizuna da Bizkaiko Foru Aldundia lagapen-erabakiaren jakinarazpena helaraztea modu frogagarrian.

Prezioa ordaintzeak prezio hori kobratzeko eskubidea sortzen dio kontratistari eta hura ordaintzeko betebeharra, berriz, Bizkaiko Foru Aldundiari. Horiek horrela:

a) SPKLn eta kontratuan ezarritako baldintzetan egindako prestazioaren ordainketa jasotzeko eskubidea izango du kontratistak, itundutako prezioaren arabera nolanahi ere.

Kontratistak, halaber, eskubidea izango du kontratua gauzatzeko prestakuntza-eragiketen zenbatekoaren adinako konturako ordainketak jasotzeko, eragiketok kontratuaren xedearen barnean badaude, betiere baldintza-agiri honen karatulako "V" apartatuan adierazitako eran (BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK). Halako ordainketak bermea jarrita ziurtatu behar dira.

b) Bizkaiko Foru Aldundiak prezioa ordaindu behar du, SPKLren 198. artikuluan eta harekin bat datozen artikuluetan ezarritakoaren arabera. Artikulu horietan, halaber, ordainketaren berandutzeari buruzko araubide juridikoa ezartzen da.

9.6.3.- Ordaintzeko era.

Prezioa osorik edo zatika ordain daiteke, konturako ordainketak eginez, edo, segidako traktudun kontratuetan, hitzarturiko mugaegun bakoitzean ordainketa eginez, baldintza-agiri honen karatulako "V" apartatuan jasotakoaren arabera (BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK).

Ordainketa egiteko, kontratistak faktura elektronikoa bidali beharko du Bizkaiko Foru Aldundiaren faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorraren bidez, hemendik: http://www.bizkaia.eus.

Faktura elektronikoak sortu eta bidaltzeko, Ef4tur aplikazioa doan deskargatu ahal izango da. http://aplijava.bizkaia.eus/CGFW/?idioma=CA

Faktura elektronikoak faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorraren bidez bidaltzen badira, fakturok formatu egituratua izan beharko dute, eta bide elektronikoz sinatuta egon, eta nahitaezkoa da onartutako ziurtagiria edukitzea. Plataformak faktura elektronikoaren eredu hau onartzen du: FACTURAE, 3.2 bertsioa eta 3.2.1 bertsioa; formatu horren gainean informazio gehiago nahi izanez gero, helbide hau kontsulta daiteke:www.facturae.es..

Fakturan identifikatu beharko dira faktura jaso behar duten administrazio-organoak, hau da, plegu honen karatulako BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK V. atalean daudenak.

9.6.4.- Urtekoak.

Zeinahi dela ere gauzatutako kontratuaren zenbatekoa, kontratistak ez du izango eskubiderik urte bakoitzean izendaturiko urtekoaren zenbatekoa baino gehiago jasotzeko. Hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiak doitu egin ditzake onetsitako urtekoak, urteko horiek kontratua exekutatzeko erritmoari egokitzearren.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

9.6.5.- Prezioak berrikustea.

Prezioak honela berrikusiko dira: baldintza-agiri honen karatulako "L" apartatuan ezartzen denaren arabera (PREZIOAK BERRIKUSTEA); kontratu-dokumentuan ezarritakoaren arabera, bestela; edo SPKLren 103. artikuluan eta berarekin bat datorren araudian ezarritakoaren arabera.

9.7. Kontratua aldatzea.

Interes publikoaren arrazoiak direla-eta bakarrik alda daitezke administrazio-kontratuak, SPKLren 203. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan eta moduan.

Indarrean dagoen bitartean, honako egoera hauetakoren batean bakarrik alda daiteke kontratua:

a) Administrazio-klausula partikularren agiri honen karatulan aurreikusirik badago, hasierako prezioaren ehuneko hogei arte alda daiteke, 204. artikuluan ezartzen den eran, han zehazturiko edukiarekin eta han ezarritako modu eta baldintza beretan.

Edozelan ere, aldaketaren ondorioz ezin izango da ezarri kontratuan aurreikusi gabeko aleko prezio berririk.

b) Salbuespen gisa, beharrezkoa denean administrazio-klausula partikularren agiri honen karatulan aurreikusirik ez dagoen aldaketa bat egin behar denean, baina baldin eta 205. artikuluak ezartzen dituen baldintzak betetzen badira.

SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira kontratu-aldaketak, eta SPKLren 207. eta 63. artikuluetan ezarritakoarekin bat argitaratu.

Prezioa zehazteko exekuzio-unitateak baliatzen direnean, ez da kontratu-aldaketatzat joko, prestazioa egoki egiten bada, diferentzia egotea benetan exekutaturiko unitate-kopuruaren eta kontratuan aurreikusitako kopuruaren artean. Diferentzia hori likidazioan jaso ahal izango da, baldin eta unitateok ez badakarte berarekin gastua kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino gehiago handitzea.

9.8.- Kontratua etetea.

Baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiak kontratua etetea erabakitzen badu, edo SPKLren 208. artikuluan ezartzen dena aplikatzeagatik eteten bada, akta bat egin behar da, ofizioz nahiz kontratistaren eskariz, egoera hori sorrarazi duten inguruabarrak jasotzeko, eta kontratuaren gauzatzea zein egoeratan geratu den agertzeko.

9.9.- Kontratistaren betebeharrak.

9.9.1. Lan-, gizarte- eta ingurumen-arloko betebeharrak.

Kontratuak bete egin behar ditu lan-arloan, gizarte segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden eta aplikatzekoak diren lege-, erregelamendu- eta konbentzio-xedapenak.

Kontratistak, adjudikatu zaion lana betetzeko erabiliko dituen langileak direla eta, zehatz-mehatz bete behar ditu lan arloan indarrean dagoen araudia, Gizarte Segurantzakoa, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzekoa eta lan-arriskuen prebentziokoa, eta, azken bi horiei dagokienez, gizarte-prestakuntzako araudia ere bete behar du. Halaber, kontratistak beste konpromiso bat hartu behar du: enpresa azpikontratistek —halakorik egonez gero—, haien langileak direla-eta, lan arloan indarrean dagoen legeria beteko dutela. Kontratistak derrigorrean zaindu behar du bere enpresako zein azpikontratatzen dituen enpresetako —halakorik egonez gero— langileek baldintza duinetan egiten dutela lan; haien sektoreko hitzarmena aplikatuko zaie langile horiei, batez ere langileen subrogazioari dagokionez.

9.9.2. Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak.

Kontratua exekutatzeko baldintza berezitzat joko dira honako hauek:

1.- Araudia betetzea. - Kontratua gauzatzen ari denean, kontratistak Europar Batasuneko zuzenbidean, estatuko zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatua lotesten duten gizarte, ingurumen eta lanaren arloko nazioarteko zuzenbidearen xedapenetan ezarritako gizarte, lan eta ingurumenaren arloko betebeharrak bete beharko ditu. Halaber, erantzukizunpeko adierazpena egingo du eskaintza egiterakoan araudi hori aplikatu duela egiaztatzeko, 2. ERANSKINEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA erabilita.

2. Oinarrizko lan-eskubideak errespetatzeko eginbidea eta LANE Lanaren Nazioarteko Erakundearen funtsezko konbentzioak betetzekoa.- - Kontratistak bere egiten du produkzio-kate osoan oinarrizko lan-eskubideak errespetatzeko eginbidea, eta, halaber, LANEren funtsezko hitzarmenak betetzekoa; bereziki, behean zerrendatzen direnak, kontuan izanik horretarako 2. ERANSKINean jasotzen den ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA:

- 29. eta 105. Konbentzioak, bortxazko lanak desagerrarazteari buruzkoak.
- 87. eta 98. Konbentzioak, askatasun sindikalari, elkartzeko askatasunari eta negoziazio kolektiboari buruzkoak.
- 100. Konbentzioa, balio berdineko lanetan gizonen eskulana eta emakumeen eskulana berdin ordaintzeari buruzkoa.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

- 111. Konbentzioa, lana emateko eta lan-baldintzak ezartzeko orduan diskriminatzearen aurkakoa (arraza, kolorea, sexua, erlijioa, iritzi politikoa, jatorri nazionala edo jatorri soziala direla-eta).
- 138. Konbentzioa, esplotazioa eta umeen lana ezabatzeari buruzkoa.
- 182. Konbentzioa, haurren lan txarrenak debekatzeari eta berehala ezabatzeko ekintzari buruzkoa.

3.- **Desgaitasuna duten pertsonak enplegatzeko legezko betebeharra.—** Kontratuak dirauen bitartean, kontratistak betebehar hauek izango ditu: pertsonalaren 100eko 2 gutxienez desgaitasuna duten pertsonak izatea, enpresak 50 langile edo gehiago baditu, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 42. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen testu hori), edo apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan ezarritako ordezko neurriak ezartzea. Gainera, konpromisoa hartzen du kontratuaren arduradunaren aurrean egiaztatzeko aipatutako betebeharrak betetzen direla. Arduradunak eskatzen duenean egingo da hori, kontratuaren indarraldian edozein unetan, edo, edonola ere, azken faktura bidali baino lehen (2. ERANSKINA, ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA).

4.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko legezko betebeharra. Kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratistak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eginbidea du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoaren arabera. Gainera, berdintasun-plan bat duela egiaztatzeko konpromisoa hartzen du, bai legezko betebeharra duenean (150 langile baino gehiago), bai plan bat izateko betebehar konbentzionala duenean. Kontratuaren arduradunak eskatzen duenean egingo da hori, kontratuaren indarraldiaren edozein unetan, edo, edonola ere, azken faktura bidali baino lehen (2. ERANSKINA, ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA).

Kontratua exekutatzen den bitartean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko du: tratuan, lana eskuratzeko aukeretan, langileen sailkapenean, barne igoeran, lanean irautean, prestakuntzan, kontratua azkentzeko baldintzetan, ordainsarietan, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, eta lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan.

Jazarpena prebenitu eta arlo horretan erreklamazioak bideratzeko legezko betebeharra.— Kontratuaren adjudikaziodun suertatuz gero, betebeharra hartzen duela martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren, Emakumeen eta Gizonen arteko Benetako Berdintasunekoaren, 48. artikuluan ezarritakoa betetzeko, kontratuak indarrean dirauean bitartean, jazarpen sexuala eta sexuan oinarritutako jazarpena saihesten dituzten lan-baldintzak sustatzeko, bai eta prozedura bereziak bideratzeko jazarpen horiek prebenitze aldera eta jazarpen horiek jasan dituztenek salaketak edota erreklamazioak bideratze aldera (ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN 2. ERANSKINA). Era berean, konpromisoa hartzen du kontratuaren arduradunaren aurrean egiaztatzeko aipatutako betebeharra betetzen dela. Arduradunak eskatzen duenean egingo da, kontratuaren indarraldian edozein unetan.

Kontratistak hauek jakinaraziko dizkie kontratua exekutatzeko atxikita egon eta Bizkaiko Foru Aldundiarentzat edo haren instalazioetan lan egiten duten langileei: lanean sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloa, eta sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren kontra egiteko printzipioen adierazpenari eta orientazioei buruzko akordioa. Azken hori foru-webgunearen Kontratazio apartatuan dago: https://web.bizkaia.eus/es/web/contratacion-publica/informacion-general.

5.- Estereotipo sexistak saihesteko betebeharra.— Kontratua exekutatzearen ondorioz sortzen diren dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan, enpresa edo erakunde adjudikaziodunak eta azpikontratistak honelakoa badago, hizkuntza ez-sexista erabili beharko du, emakumeen irudi diskriminatzaileak eta estereotipo sexistak saihestuko ditu, eta balio hauek dituen irudi bat sustatuko du: berdintasuna, emakume eta gizonen presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta rolen eta genero-identitateen pluraltasuna.

Kontratazio-organoak izendatutako kontratuaren arduradunak dokumentazio hori aztertu beharko du, erabili eta zabaldu baino lehen.

6. Kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa. Adjudikaziodun gertatuz gero, lizitatzaileek zehaztuko dute kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa. Horrez gainera, kontratua adjudikatzerakoan kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileek izango dituzten lan-baldintzei buruz jakin nahi den informazio guztia emateko betebeharra dute (2. ERANSKINA, ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA).

Adjudikaziodunak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatzekoa dela deklaratzen duen hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa adjudikazio-ebazpenean jasoko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko. Ildo horretan, eskaintza aurkezteak esan nahi du lizitatzaileek borondatez onartzen dutela gardentasun instituzionala ematea lizitazio, adjudikazio eta kontratua amaitu arteko exekuzio prozesuen ondoriozko datu guztiei.

7. Hitzarmenean jasotako soldata ordaintzeko betebeharra. - Kontratistak sektoreko hitzarmen kolektiboan

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

jasotako soldata ordaindu beharko du, kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan (2. ERANSKINA, ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA).

8. Subrogatzeko betebeharra. - Lege-arau baten, hitzarmen kolektibo baten edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio baten ondorioz, adjudikaziodunak zenbait lan-harremanetan enplegatzaile gisa subrogatu behar badu, klausula hauek ezarriko dira, Zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 6. artikuluan ezarritakoa betetzeko:

a) Ohartarazten da kontratazioak berarekin dakarrela langile guztien lan-kontratuen subrogazioa —hala badagokio, betebeharra ezartzen duen arauan jasotako gutxieneko antzinatasunarekin—, langile horiek beste kontrata batekoak izan arren kontratuaren xede den jarduera egiten ari baldin badira; horren ondorioz, enpresaburu berriari subrogatu egingo zaizkio aurrekoak zituen laneko eta Gizarte Segurantzako eskubideak eta betebeharrak.

b) Adjudikazioduna enplegatzaile gisa subrogatzeko neurriaren lan-kostuak ebaluatu ahal izateko, kontratu honen subrogazioak eragindako langileen kontratuen baldintzei buruz behar den informazioa dagokion eranskinean adierazitakoa da.

Adjudikatuko den kontratuaren xede den prestazioa ematen ari den eta ukitutako langileen enplegatzaile den enpresak emandako informazioarekin osatu da aipatutako informazioa.

c) Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren zati bat hirugarrenekin kontratatzen badu, kontratista nagusiak bere gain hartuko du kontratua exekutatzeko erantzukizun osoa Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean, administrazio-klausula partikularren agirian jasotakoari eta kontratuan ezarritakoari zorrozki lotuz, barne hartuta arlo sozialeko eta laboraleko betebeharrak betetzea.

Subrogatu beharra dagoen kasuetan, adjudikaziodunak zerbitzuak ematen arituko diren pertsonen zerrenda aurkeztuko du zerbitzuak ematen hasi baino lehen, bere eskaintzan jasotako lanpostuen zerrenda kontuan hartuta, kontratuaren arduradunak aukera izan dezan plangintzaren barruko lanak betetzen ari diren pertsonak edozein unetan identifikatzeko. Halaber, enpresa kontratistak ezin izango ditu ordeztu bere eskaintzan ezarritako langileak eta ezin izango du kontratazio berririk egin Bizkaiko Foru Aldundiaren berariazko baimenik gabe.

d) Eragotzi gabe, hala dagokionean, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 44. artikuluan ezartzen dena (2015eko urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaz onetsia), kontratista beharturik egongo da subrogazioak ukituriko langileei ordaindu gabe geraturiko soldatengatik erantzutera, bai eta Gizarte Segurantzako kotizazioengatik ere, baita kontratua suntsiarazten bada eta langileak kontratista berriak subrogatzen baditu ere. Edozelan ere, betebehar hori ez zaio inoiz kontratista berriari egokituko. Halakoetan, Bizkaiko Foru Aldundiak, behin egiaztaturik soldatok ez direla ordaindu, atxiki egingo ditu kontratistari zor zaizkion zenbatekoak, soldatak ordaintzen direla bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko harik eta egiaztatu arte haiek ordaindu direla.

9. Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak, hizkuntza arloan. Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio-organoek sinatzen dituzten kontratuak hizkuntza ofizial bien araubidearen mendean daude, honako arauetan ezartzen denarekin bat: Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua, Euskararen Erabilpena Arautzeko Eusko Legebiltzarraren azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea eta arlo horretan indarrean dauden erkidegoko araudia eta foru-araudia.

10. Datu pertsonalak isilpean gordetzeko eta babesteko betebeharra. - *Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea*ren hogeita bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez, datu pertsonalen tratamendua eragiten duten kontratuak formalizatzen direnean eta, aldi berean, kontratua formalizatzen duen pertsonak (fisikoa edo juridikoa, aurrerantzean, *kontratista*) izaera pertsonaleko datuak eskuratzen dituenean:

- *kontratista* hori ***tratamendu-eragilea*** izango da, eta datu pertsonalak eskuratu ahal izango ditu eta/edo haien tratamendua egin
- kontratua sustatzen duen zerbitzua atxikita dagoen Bizkaiko Foru Aldundiaren zuzendaritza nagusiaren kontura (aurrerantzean, zuzendaritza eskuduna), zeina ***datuen tratamenduaren arduraduna*** izango den

*Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua*ren (EB) 28. artikuluan (*datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa*, aurrerantzean DBEO) eta *abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa*ren 33. artikuluan ezarritakoarekin bat (*Datuen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa*, aurrerantzean DBEDBLO). Alderdi bientzat, datuen babesari buruzko araudiaren mendean jartzeko adierazpena (DBEO eta DBEDBLO): araudi hori kontratu-espedienteari eta etorkizuneko kontratuari aplikatu beharreko araubide juridikoa da, eta kontratistak

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

eta zuzendaritza eskudunak nahitaez bete behar dute; bi alderdiek errespetatu eta bete behar dituzte datuak babesteko araudi honetan ezartzen diren betebehar eta estipulazio guztiak. Bi alderdiek nahitaez bete behar dituzte, halaber, klausula honetan eta gainerako baldintza-agirietan datuak babesteko xedatutako betebehar eta estipulazio guztiak. Alderdi biak datuen babeserako araudiaren (DBEO eta DBEDBLO) menpe jartzeko adierazpena kontratua egikaritzeko baldintza berezia eta funtsezko betebeharra da, *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea*ren 211.1 artikuluaren f letran xedatutakoaren ondorioetarako.
Araudian ezarri denarekin bat, halako datuak eskuratzea ez da datu-komunikaziotzat joko, eta *kontratistak*, tratamenduaren eragile gisa, zuzendaritza eskudunaren aginduak bete beharko ditu, bai eta neurri hauek ere:

Datu pertsonalen tratamendua:
Zuzendaritza eskudunak *tratamenduaren arduraduna* izatetik datozkion erantzukizuna eta betebeharrak ditu, eta kontratua formalizatuko duen pertsonak, berriz, *tratamenduaren eragilea* izatetik datozkion erantzukizuna eta betebeharrak.
Hauek dagozkio *tratamenduaren arduradunari*:

a) Baimena ematea «*Datu pertsonalen tratamendua*» eranskinean datuak tratatzeko zehazten diren jarduerak egiteko (PTA).
b) Aurretik zaintzea, tratamenduan zehar kontrolatzea eta *a posteriori* ikuskatzea datuen babesari buruzko araudia betetzen dela.
c) Araudiarekin bat egin beharreko tratamendu-eragiketetako datu pertsonalen babesari buruzko ikuskapenak, auditoriak eta eragin-ebaluazioak egitea.
d) Beharrezkoak diren aurretiazko kontsultak egitea.
"Datu pertsonalen tratamendua" eranskina *ad hoc* prestatutako jarraibideen idazkia da. Idazki horretan, alderdi hauek zehazten dira: babestu behar diren datu pertsonalak, egin behar den datuen tratamendua eta haien xedea, eta *kontratistak* inplementatu behar dituen neurriak. *Kontratistak* datuak "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean jasota ez dauden beste helburu batzuetarako erabiliko balitu, komunikatu egingo balitu edo kontratuan eta/edo indarreko araudian ezarrita dauden estipulazioak bete gabe erabiliko balitu, *tratamenduaren arduraduntzat* joko litzateke, eta maila pertsonalean egindako arau-hausteen erantzule izango litzateke.
Behin kontratua formalizatuta dagoela eta hura exekutatu bitartean beharrezkoa balitz « Datu pertsonalen tratamendua » eranskinean estipulatutakoa aldatzea edo egokitzea, orduan, *kontratistak* eskaera arrazoitua egingo du eta adieraziko du zer alderdi aldatu edo egokitu nahi dituen. *Zuzendaritza eskuduna* eskatu denarekin ados egonez gero, «Datu pertsonalen tratamendua» eranskin eguneratu bat emango litzateke, tratamenduaren zehaztasun guztiak fideltasunez jasoko lituzkeena.

Tratamendu-eragileentzako estipulazioak
DBEOren 28. artikuluan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoaren arabera, *kontratista*ren betebeharra izango da betebehar hauek betetzea eta bermatzea, "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean zehaztu denarekin osatzen direnak:
a) Klausula honetan jasotzen diren jarraibideekin bat edo kontratuaren exekuziorako aplikatzekoak diren gainerako agiriekin bat edo, hala denean, *zuzendaritza eskudun*etik kasuan-kasuan idatziz jasotako jarraibideekin bat tratatzea datu pertsonalak. *Kontratistak* 10 egun balioduneko epearen barruan jakinaraziko dio zuzendaritza eskudunari uste badu jarraibide horietako bat datu pertsonalak babesteko araudiaren aurkakoa izan daitekeela.
b) Datu pertsonalen tratamenduaren helburua jakinaraztea, eta datu pertsonalak ez erabiltzea jakinarazitako helburua eta kontratuaren helburua ez den beste baterako. Betebehar hori funtsezkoa da, *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 artikuluaren* f letran xedatutakoaren ondorioetarako.
c) Datu pertsonalak DBEOren 32. artikuluan xedatutako segurtasun-irizpideen eta edukiaren arabera tratatzea, eta erabiltzen dituen datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna ziurtatzeko beharrezkoak edo gomendagarriak diren segurtasun arloko neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak hartu eta betetzea. Aurrekoa, hain zuzen, bat dator Administrazio Elektronikoaren esparrurako Segurtasun-Eskema Nazionala arautzen duen 3/2010 Errege Dekretuan ezarritako informazio-sistemen kategorizazioarekin eta segurtasun-neurrien aplikazioarekin.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

Kontratua formalizatu aurretik, *kontratistak* adierazpen bat aurkeztu beharko du, eta bertan jaso beharko du non egongo diren zerbitzariak kokatuta eta nondik emango dituzten haiei lotutako zerbitzuak. Kontratua indarrean dagoen bitartean, *kontratista* behartuta dago jakinaraztera adierazpenean jasotako informazioaren edozein aldaketa (adierazpen horretan jasotzen da zerbitzarien kokapena eta zerbitzuak nondik emango diren). Betebehar horiek funtsezkoak dira, *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 artikuluaren* f letran xedatutakoaren ondorioetarako.

d) Kontratua gauzatzeko erabiltzen dituzten datu pertsonalen erabateko konfidentzialtasuna gordetzea, bai eta haien tratamenduaren ondorioz sortzen direnena ere, datuok lortu diren euskarria edozein dela ere.

*Kontratista*ren menpe tratamenduaren edozein fasetan esku hartzen duten pertsona guztiek izango dute aurreko betebehar hori, eta, era berean, kontratistaren ardura izango da organikoki edo/eta funtzionalki bere menpe dituzten pertsonak ohartaraztea sekretu-betebeharraz eta hura gordetzen jarraitu behar dutela zerbitzua bukatutakoan ere edo zerbitzuarekiko lotura galdu badute ere.

e) Agiri honen helburu diren datu pertsonalak tratatzeko baimendutako pertsonen zerrenda izatea, eta ziurtatzea pertsona horiek konpromisoa hartu dutela, espresuki eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta behar diren segurtasun-neurriak betetzeko (pertsona horiei behar jakinaraziko dizkie neurriok). Era berean, *zuzendaritza eskudunaren* esku jartzea egiaztatzeko dokumentazio hori.

f) Tratamendua egiteko baimendutako pertsonek datu pertsonalen babesaren arloan beharrezkoa den prestakuntza dutela bermatzea.

g) Hirugarrenei ez komunikatzea (lagapenean uztea) eta ez zabaltzea datu pertsonalik, datuak kontserbatzeko bada ere; salbuespena da horretarako *tratamenduaren arduradun*aren baimen espresua dagoenean.

H) Datuak Babesteko ordezkari bat izendatzea, hala badagokio, DBEOren arabera beharrezkoa denean, eta *zuzendaritza eskudun*ari jakinaraztea, baita izendapena borondatezkoa denean ere.

Hala badagokio, *kontratista*k datu pertsonalak babesteko ordezkari gisa izendatutako pertsona fisiko(ar)en identitatea eta harremanetarako datuak jakinaraztea.

i) Honako agiri honen xedea den kontratu-prestazioa amaitu ondoren, kasuan kasu eta "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean agintzen denaren arabera, konpromisoa hartzen du datu hauek itzultzeko edo suntsitzeko:

- eskuratu dituen datu pertsonalak
- *kontratista*k tratamendua dela-eta sortutako datu pertsonalak
- datu horiek biltzen dituzten euskarriak eta agiriak, inolako kopiarik gorde gabe

salbu eta legez edo Batasuneko zuzenbidearen arauz haien kontserbazioa baimentzen edo eskatzen bada, kasu horretan ez baitira suntsituko. Hala ere, *kontratista*k datuak gorde ahal izango ditu erantzukizunak sor daitezkeen bitartean. Azken kasu horretan, datu pertsonalak blokeatuta eta ahalik eta denbora gutxien kontserbatuko dira, eta epe hori amaitu bezain laster suntsituko dira modu seguruan eta behin betiko.

j) "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean zehazten diren tratamendu-jarduerak egitea (PTA).

l) DBEOren 33. artikuluak ezartzen duenarekin bat, berehala komunikatzea *zuzendaritza eskudunari*, gehienez ere 72 orduko epearen barruan, bere ardurapean dauden datu pertsonalen segurtasuna hautsi denean, hala gertatu dela jakitun bada. Era berean, jakinaraziko dio informazioaren tratamendu- eta kudeaketa-sisteman izan duen edo izan lezakeen —eta datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna arriskuan jartzen duen— edozein gorabehera edo hutsegite dokumentatzeko eta komunikatzeko garrantzizkoa den edozein informazio, bai eta kontratua exekutatu bitartean lortutako datuak eta informazioak hirugarren batzuei ezagutzera eman beharraren ondorioz konfidentzialtasunean izandako edozein urraketa ere. Informazio xehea komunikatuko du lehenbailehen horri buruz, zehatz adierazita zer pertsonak jasan duten konfidentzialtasun-galerarik.

m) Pertsona fisiko batek kontratistarekin datuen babesaren arloko eskubideren bat baliatzen duenean (datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea eta aurka egitea, tratamendua mugatzea, eta banakako erabaki automatizatuak edo araudi aplikagarriak aitortutako beste batzuk ez hartzea), *kontratista*k jakinarazi behar dio hori ahalik eta lasterren *zuzendaritza eskudun*ari. Komunikazioa berehala egin behar da, eta inola ere ez eskubidearen egikaritza jaso eta hurrengo lanegunetik aurrera, eta, hala badagokio, bere esku dagoen eskaera ebazteko garrantzitsuak izan daitezkeen dokumentazioarekin eta bestelako informazioekin batera, eskubidea egikaritzen duenaren identifikazio sinesgarria barne. *Zuzendaritza eskudun*ari lagunduko dio, ahal den guztietan, hark eskubide-egikaritzak bete eta erantzun ditzan.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

n) Laguntza ematea *zuzendaritza eskudunar*i haren betebeharrak betetzen: segurtasun-neurrien arloko betebeharrak zein segurtasun-neurrien arrakalak (lortuak zein saiatu direnak) agintaritza eskudunei eta interesdunei komunikatu eta/edo jakinarazteko betebeharrak; horrez gainera, eragin-ebaluazioak egiten laguntzea.

*Zuzendaritza eskudun*ari laguntzea kontrol-agintaritzari (Datuak Babesteko Euskal Bulegoari) egin beharreko aurretiazko kontsultetan, hala behar denean.

Halaber, *zuzendaritza eskudun*aren esku jarriko du, hark eskatuta, agiri honetan eta gainerako kontratu-agirietan aurreikusitako betebeharrak betetzen direla frogatzeko behar den informazio guztia, eta *zuzendaritza eskudun*ak, hala badagokio, auditoriak eta ikuskapenak egiten lagunduko du.

n) Idatziz edukitzea, baita formatu elektronikoan ere, eta DBEOren 30.2 artikuluarekin bat, *zuzendaritza eskudun*aren (*tratamenduaren arduradun*aren) kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistro bat, zeinean jasoko baitira, gutxienez, artikulu horrek aipatzen dituen inguruabarrak. Horrela, bada, erregistro horrek informazio hau jasoko du:

- *Kontratistaren izena* eta harremanetarako datuak edo, hala behar denean, tratamenduaren ardura duten beste pertsona batzuenak eta *zuzendaritza eskudunarenak (tratamenduaren arduraduna)*.
- Eginiko tratamenduen kategoriak.
- Segurtasun arloko neurri teknikoen eta antolaketa-arlokoen azalpen bat, halako neurririk hartu behar bada, alderdi hauekin lotutakoak:
    - Datu pertsonalen pseudonimizazioa eta zifratzea.
    - Tratamendu-sistema eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia etengabe bermatzeko gaitasuna.
    - Arazo fisiko edo tekniko bat gertatzen denean datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea arin berreskuratzeko gaitasuna.
    - Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolaketa arlokoen eraginkortasuna egiaztatu, ebaluatu eta baloratzeko prozesua.

o) Datuen babesari buruzko araudia eta erantzukizun aktiboaren eginbeharra betetzen direlako ebidentziak izatea. Adibidea: betetze-mailari buruzko aurretiazko ziurtagiriak edo auditorien emaitzak, zeinak *zuzendaritza eskudun*aren esku jarri beharko baititu berak eskatuta. Era berean, kontratua indarrean dagoen bitartean, unean-unean egindako informazio, ziurtagiri eta auditoria guztiak *zuzendaritza eskudun*aren esku jarriko ditu.

p) Informazio-eskubidea: Datuak biltzen direnean *kontratista* denak informazioa eman beharko du egingo diren datu-tratamenduei buruz. Informazioa emateko idazketa eta formatua *zuzendaritza eskudun*arekin adostu behar dira, datuak biltzen hasi aurretik.

Klausula honek eta bertan ezarritako betebeharrek eta "datu pertsonalen tratamenduari buruzko eranskinak" osatzen dute *zuzendaritza eskudun*aren eta *kontratista*ren arteko tratamendu-mandatuaren kontratua, zeina DBEOren 28.3 artikuluan aipatzen den. Hemen adierazitako betebeharrak eta prestazioak ez dira ordainduko baldintza-agirietan eta gainerako kontratu-dokumentuetan aurreikusitakoaz gain edo bestelako moduan, eta baldintza-agiri honen eta beraren kontratuaren xede den prestazioaren iraupen bera izango dute. Gainera, kontratua luzatuz gero, neurri berean luzatuko dira haiek ere. Dena den, kontratua amaitutakoan, sekretu-eginbeharrak indarrean iraungo du, denbora-mugarik gabe, kontratuaren exekuzioarekin zerikusia izan duten pertsona guztientzat.

Baldintza-agiri honen xedea betetzeko ez da beharrezkoa *kontratista*k *zuzendaritza eskudun*aren ardurapeko beste ezein datu pertsonal eskuratzea, eta, beraz, ez dago baimenduta "datu pertsonalen tratamendua" eranskinean zehaztutakoak ez diren beste datu batzuk eskuratzea edo tratatzea. Kontratua exekutatu bitartean gorabeheraren bat gertatuz gero eta, horren ondorioz, *zuzendaritza eskudun*aren ardurapeko datu pertsonaletara ustekabean edo gorabeheraren batengatik sartu behar bada ("datu pertsonalen tratamendua" eranskinean ez daude jasota), *kontratista*k *zuzendaritza eskudun*ari jakinarazi beharko dio, zehazki, datuak babesteko ordezkariari, ahalik eta arretarik handienarekin eta 72 orduko epean beranduenez.

Azpikontratazioei lotutako tratamendu-azpimandatuak:

*Kontratista*k hirugarrenekin azpikontratatu nahi badu kontratuaren exekuzioa, eta azpikontratistak, kontratatua izanez gero, datu pertsonalak eskuratu behar baditu, kontratistak hori aldez aurretik jakinaraziko dio *zuzendaritza eskudun*ari, eta datu pertsonalen zer tratamendu dakarren adieraziko dio, *zuzendaritza eskudun*ak erabaki dezan, hala badagokio, azpikontratu horri baimena eman ala ez.

Elektronikoki sinatutako dokumentua, 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

Nolanahi ere, azpikontratazioa baimentzeko, ezinbesteko betekizuna da baldintza hauek betetzea; nahiz eta baldintza horiek bete, *zuzendaritza eskudun*ari dagokion baimen hori emateko edo ez emateko erabakia hartzea:

- Azpikontratistak datu pertsonalen tratamendua indarreko legeriara, baldintza-agiri honetan jasotakora eta *zuzendaritza eskudun*aren jarraibideetara egokitzea.
- *Kontratista*k eta azpikontratistak datuak tratatzeko mandatu-kontratu bat formalizatzea, baldintza-agiri honetan aurreikusitako baldintzak bezain murrizgarriak diren baldintzetan. Kontratu hori *zuzendaritza eskudun*aren esku jarriko da, errekerimendua egiten zaionean, kontratu horren existentzia eta edukia egiaztatzeko.

Kontratistak *zuzendaritza eskudun*ari jakinaraziko dio beste azpikontratista batzuk kontratatzen badira edo daudenak aldatzen badira, *zuzendaritza eskudun*ak aukera izan dezan baimena emateko. *Zuzendaritza eskudun*ak erantzuten ez badio *kontratista*ren eskaerari, horrek esan nahi du eskaeraren kontra dagoela.

*Kontratista*k hirugarren pertsonekin azpikontratatu nahi baditu zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak, nahitaezkoa da lizitatzaileek aldez aurretik adieraztea eskaintzan enpresaren izena edo profila, kaudimen profesionalaren edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztua, azpikontratistei dagokienez. Betebehar hori funtsezkoa da, *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen* 211.1 artikuluaren f letran xedatutakoaren ondorioetarako.

SPKLren 215.4 artikuluaren arabera, azpikontratistek kontratista nagusiari dagokionez baino ez dituzte betebeharrak izango, eta kontratista nagusiak bereganatuko du, beraz, Administrazioarekiko erantzukizun osoa kontratua exekutatzeko. Datuen babesaren arloari dagokionez, agirietan eta kontratuan ezarritakoa zorrotz bete beharko da, bai eta SPKLren 202.1 artikuluan jasotako betebeharra ere (DBEO eta DBEDBLO datuen babeserako araudiaren menpe jartzea).

9.9.2.1. Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak betetzearen jarraipena.

Foru Aldundiaren aldetik.- - Kontratuaren arduradunak kontratua gauzatzeko baldintza berezi horiek betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egingo du, eta dokumentazio hori edo beste bat eskatu ahal izango dio kontratistari, kontratuaren betetze-maila kontrolatzeko eta ebaluatzeko dagozkion ahalmenak betetzeko. Halaber, jarraipen bilerak egiteko eta aldizkako ebaluazio txostenak aurkezteko eskatu ahal izango dio. Kontratuan ezarritako betebeharrak betetzen ez direnean, kontratuaren arduradunak egoera horren berri emango dio kontratazio-organoari, eta, beharrezkoa bada, zigorrak ezartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.

Kontratistaren aldetik. Kontratistak bere gain betebeharra hartzen du kontratuaren arduradunaren eskura jartzeko eta berari eskuratzeko eskatzen duen informazio eta dokumentazio guztia, egiaztatu ahal izateko betetzen direla hala baldintza-agiri honetan jasotzen diren exekuzio-baldintza bereziak, nola 2. ERANSKINeko erantzukizunpeko adierazpenean harturiko konpromisoak.

Kasu guztietan, amaierako fakturarekin batera, kontratistak erantzukizunpeko adierazpen/zinpeko adierazpen bat egin beharko du, non adieraziko duen kontratua gauzatzeko legea edo kontratua dela-eta eskatu ahal zaizkion konpromiso eta baldintza berezi guztiak bete dituela (neurri horien zerrenda egingo du). Adierazpenarekin batera, kontratuaren arduradunaren txosten bat aurkeztuko da, non aztertuko den adierazpenean aitortutakoa eta kontratuan ezarritako betebeharrak benetan bete diren.

9.9.2.2. Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzearen ondorioak.

Kontratazio-organoak zigorrak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari, kontratua exekutatzeko baldintza bereziak ez betetzeagatik.

Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzea ez-betetze arintzat joko da, eta zigorraren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 4ra artekoa izan daiteke, salbu eta kontratazio-organoak uste badu —era arrazoituan—, ez-betetzea larria edo oso larria dela. Halakoetan, zigorra % 7ra artekoa izan daiteke, ez-betetze larria gertatzen bada, eta % 10era artekoa, berriz, ez-betetze oso larria gertatzen bada. Larritasun-maila balioesteko, kontuan hartuko da ez-betetzearen errepikapena.

Aurrekoa gorabehera, baldintza-agiri honen 9.9.2 apartatuko 1., 2., 7. eta 10. zenbakietan jasotako exekuzio-baldintza bereziak funtsezko betebehartzat hartuko dira beti eta, beraz, horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, SPKLren 211.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Baldintza-agiri honen karatulako "V" apartatuak (BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK) ezartzen dituen gauzatze-baldintza bereziak betetzen ez badira, kontratazio-organoak apartatu horretan aurreikusten diren zigorrak ezarri ahal izango ditu. Apartatu horretan ("V. - BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK) ez bada zigorrik aurreikusten, apartatu honen bigarren paragrafoan xedatutakoa beteko da, eta bertan aurreikusitako zigorrak ezarri ahal izango ditu kontratazio-organoak.

Elektronikoki sinatutako dokumentua, 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

Zigorrak betetzeko aukera bi daude: batetik, zigor horien zenbatekoa kendu egin daiteke kontratistari egin behar zaizkion ordainketa oso edo partzialetatik; bestetik, zigor hori bermetik ken daiteke, halakoa eratu bada eta zigor horien zenbatekoa ezin bada egin beharreko ordainketatik kendu.

9.9.3. Enpresa kontratista adjudikaziodunaren langileei buruzko arau bereziak.

1. Kontratu hau egiteko erabiliko diren langileei dagokienez, enpresa kontratista-adjudikaziodunak bere gain hartzen du enpresaburu guztiek enpresa zuzentzeko berez duten boterea benetan, eraginkortasunez eta etengabe erabiltzeko betebeharra. Hain zuzen ere, honako jarduera hauek hartuko ditu bere gain: soldatak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; ordezpenak egitea; lan-arriskuen prebentzioaren arloko betebehar legalak betetzea; diziplina-zehapenak jartzea —hala badagokio—; Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzea, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne; eta enplegatuaren eta enplegu-emailearen arteko kontratu-harremanetik datozen eskubide eta betebehar guztiak betetzea.

2. Enpresa kontratista adjudikazioduna behartuta dago kontratuaren helburua bere bulego edo instalazioetan betetzera; baina, salbuespenez, baimena eman dakioke zerbitzuak administrazio-bulegoetan egiteko. Kasu horretan, enpresa kontratista-adjudikazioduneko langileak, ahal delarik, langile publikoetatik bereiz egongo dira, hau da, beste leku bat okupatuko dute. Enpresa kontratista-adjudikaziodunari dagokio baldintza hau ere betetzea.

3. Enpresa kontratista-adjudikaziodunak koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du gutxienez ere; pertsona horrek enpresako plantillakoa izan behar du, eta betebehar hauek izango ditu, besteak beste:

a) Enpresa kontratista-adjudikazioduneko langileek enpresa kontratatzaileari kontratuaren exekuzioa dela-eta egin beharreko edozein jakinarazpen jaso eta transmititzea.

b) Enpresa kontratista-adjudikaziodunaren lan-arauak betetzen direla kontrolatzea, bereziki langileak lanera joaten diren eta nola hartzen dituzten oporrak. Izan ere, kontratatutako zerbitzua ez eragoztea da helburua.

9.9.4.- Aseguruak

V. apartatuan (BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK) beren-beregi ezartzen dena gorabehera, kontratistak zerbitzurako oro har, erantzukizun zibileko aseguru bat formalizatu behar du, alde orokorra eta ustiapena, patronala eta amaitutako lanak eta/edo produktuak estaliko dituena. Aseguru horretan kontratista bera eta azpikontratista ere —halakoa izanez gero— izango dira asegurudunak. Aseguruaren zenbatekoak erresalburik gabe estali behar ditu kontratistak zein azpikontratistak zerbitzua exekutatzean eta kontratu-betebeharrak aurrera eramatean hirugarrenei zuzenean nahiz zeharka eragin ahal zaizkien kalte guztiak.

Baldintza-agiri honen karatulan ez bada kopururik aipatzen, lana gauzatzea bermatzeko nahikoa den zenbatekoan formalizatuko da asegurua.

Zenbateko hori gutxienekotzat eta zatiezintzat joko da, baina zabaldu egin daiteke, ondorio berberekin, zerbitzu osorako, hirugarren batzuei eragiten zaizkien gorabeherei aurre egiteko, baldin eta gorabehera horien erantzukizuna benetan kontratistari exijitu badakioke indarrean dagoen arautegiarekin bat etorrita eta kasuan kasuko edo zuzenbidearen arabera dagozkion jarduketen bidez.

Asegurua kontratatu arren, kontratista ez da bere erantzukizunetatik aske geratuko; horregatik, aseguru-etxeak ezarritako ez-betetzeak bereganatu beharko ditu.

9.9.5.- Hirugarrenen baimenak

Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartu ahal ditu egokitzat jotzen dituen kontratuak eta kudeaketak. Hori gorabehera, kontratistaren erantzukizuna da lana egokiro exekutatzeko partikularrei, elkarteei, enpresei eta organismoei eskatu behar zaizkien baimen eta lizentzia guztiak eskatzea.

Hori dela eta, kontratistak onartu egin beharko ditu ukitutakoek euren eskubide eta eskumenak erabiliz ezartzen dizkioten baldintza eta preskripzio guztiak, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiaren iritziz lana hobeto egiteko komenigarriak edo zentzuzkoak diren eskaera eta gomendio guztiak ere.

9.9.6. Materialen zaintza-betebeharra adjudikaziodunarentzat.

Bizkaiko Foru Aldundiak material guztiak edo haien parte bat jartzen baditu, adjudikaziodunaren zaintzapean uzten direla joko da, eta adjudikazioduna materialok gordetzera eta itzultzera beharturik egongo da. Eta ondasunon zaintzari eta galerari dagokienez, Kode Zibilean, Merkataritza Kodean eta Zigor Kodean xedatzen denari jarraituko zaio.

9.9.7. Oztopo arkitektonikoak eta komunikaziorako oztopoak kentzea desgaitasuna duten pertsonentzat.

Enpresa kontratistak, ahal duen neurrian, lan egingo du Bizkaiko Foru Aldundiarekin edo berarekin lankidetzan jardungo du, oztopo arkitektonikoak eta komunikaziorako oztopoak kentzeko, horrelakoak badaude kontratuaren xedepeko zerbitzu, ekitaldi edota jardueretan.

9,10.- Kontratistaren ondorengotza-kasuak.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

Enpresa kontratistaren partaidetza duen enpresa bat bat-egite batean sartuta badago, kontratuak indarrean jarraituko du erakunde xurgatzailearekin edo bat-egitetik sortu den erakundearekin, eta azken erakunde hori kontratutik sortutako eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da. Halaber, enpresak edo haien jardun-arloak zatitu, ekarri edo eskualdatzen direnean, kontratuak indarrean jarraituko du arestian aipatutako eragiketa horren ondoriozko erakundearekin edo erakunde onuradunarekin, eta azken erakunde horrek eragiketa haren ondoriozko eskubide-betebehar guztiak subrogatuko ditu, betiere adjudikazioa erabakitzerakoan eskatzen diren gaitasuna, kontratatzeko debekurik eza eta kaudimena baldin baditu, edo aipatutako eragiketen onuradun diren sozietateek —eta, iraunez gero, ondarea, enpresak edo horien jardun-arloak dauzkan sozietateak— erantzukizun solidarioa badute kontratua gauzatu behar duenarekin. Ezin bada subrogaziorik egin kontratua eratxikita duen erakundeak beharrezkoak diren kaudimen-baldintzak ez dituelako, orduan kontratua suntsiarazi egingo da, eta, ondorio guztietarako, adjudikaziodunaren erruz suntsiarazi dela ulertuko da.

Aurrekoa bete dadin, enpresak kontratazio-organoari eman beharko dio gertatutakoaren berri.

Atal honen lehen paragrafoan aipatzen diren merkataritzako eragiketen ondorioz beste entitate bati esleitzen zaionean kontratua, behin betiko bermea —hura ematen duen entiatearen iritzian— berritu egin daiteke edo beste batekin ordeztu, entitate berriak beste berme bat sinaturik, baina kontuan hartuta entitate berri horrek zer arrisku-ezaugarri berezi dituen. Halakoetan, lehenengo behin betiko bermeak bere indarraldia gordeko du harik eta berria eratzen den arte.

Kontratistaren ondorengoari dagokionez, aldi baterako enpresa-elkarte bat bada, SPKLren 69.9. artikuluan ezartzen denari jarraituko zaio.

9.11. Gardentasuna.

Bizkaiko Foru Aldundiak gardentasuna berma dezan bere bi dimentsioetan (publikotasun aktiboa eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea), enpresa adjudikaziodunak helburu hori betetzeko behar den informazioa eman beharko dio kontratazio-organoari, horretarako errekerimendua egin ondoren.

Era berean, kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa adjudikaziodunak kontratutik sorturiko informazio guztia eman beharko du, kontratazio-organoak hala eskaturik, formatu berrerabilgarrietan.

10.- KONTRATUA AZKENTZEA.

Betetzen edo suntsiarazten denean azkenduko da kontratua.

A) Kontratua betetzea.

Kontratua beteta egongo da kontratistak prestazioa osorik egin badu, betiere, kontratuko baldintzen arabera eta Bizkaiko Foru Aldundiaren nahierara.

10.1.- Jasotzea.

Hori egiaztatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak harrera- edo adostasun-egintza formal eta positibo bat egin behar du (Onarpen-akta) kontratuaren xedea entregatu edo burutzen denetik hurrengo hilaren barruan, plegu honen karatulan beste eperik ezartzen ez bada.

Bizkaiko Foru Aldundiak erabakiko du ea kontratistak egindako prestazioa behar bezala egokitzen zaien prestazioa gauzatzeko eta betetzeko ezarritako betekizunei, eta, hala dagokionean, prestazioak amaitzeko eta prestazioaren harreran ikusitako akatsak konpontzeko eskatuko du. Baldin eta lanak ez badira kontratatutako prestazioaren arabera egin kontratistari egotzi ahal zaizkion akatsen edo hutsegiteengatik, orduan Administrazioak ezetsi egin ditzake lanak, eta aske geratuko da ordaintzeko betebeharretik, edo, aurretik zer edo zer ordaindu badu, ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Lanak entregatu eta zerbitzuak egiterakoan eta haiek guztiak hartzerakoan, APKLren Erregelamendu Orokorraren 203. eta 204. artikuluetan ezartzen dena bete behar da.

10.2.- Kontratuaren likidazioa.

Harrera-akta edo adostasun-akta egiten denetik kontatuta, hogeita hamar eguneko epearen barruan onartu eta jakinarazi behar zaio kontratistari bidezkoa den kontratu-likidazioa, eta, kasua bada, dagokion saldoa ordaindu.

10.3.- Berme-epeko akatsak eta hutsak.

Berme-epea ezartzen bada, hartzen den egunetik edo adostasuna ematen den egunetik hasiko da zenbatzen, eta, epe hori igarota Bizkaiko Foru Aldundiak edo atxikitako erakundeek ez badute eragozpenik jartzen, azkendurik geratuko da kontratistaren erantzukizuna.

Egindako ondasunetan akatsik edo hutsik aurkitzen bada berme-epean, kontratistari erreklamazioa egiteko eskubidea edukiko du kontratazio organoak, akats edo huts horiek konpon diezazkion.

Berme-epea amaitu eta Administrazioak ez badu aurreko apartatuetako eragozpenetatik edo salaketetatik bat ere jarri, kontratista salbuetsita gelditukо da egindako prestazioarengatik zituen erantzukizunetatik. Nolanahi

Elektronikoki sinatutako dokumentua. 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) 7HOL-UFOS-S5ED-QVZB en www.ebizkaia.eus.

ere, kontratua obraproiektuak egiteko bazen, halako kontratuetarako ezarritakoa eta akatsak konpondu beharraz eta erantzukizunaz 314. eta 315. artikuluetan ezarritakoa bete beharko da.

B) Kontratua suntsiaraztea.

10.4.- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak.

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira SPKLren 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoak.

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak aplikatzeari eta haien ondorioei dagokienez, SPKLren 212., 213. eta 313. artikuluetan ezartzen dena bete behar da.

11.- KONTRATUAK LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA.

11.1.- Kontratuak lagatzea.

Posible da kontratua subjektiboki aldatzea kontratu-lagapenaren bitartez, baina honako muga eta betekizunekin:

11.1.1.- Mugak.

Kontratistak hirugarren bati laga diezazkioke kontratutik eratortzen diren eskubide eta betebeharrak, baldin eta:

a) lagatzailearen gaitasun teknikoak eta pertsonalak ez badira izan arrazoi erabakigarri bat kontratuaren adjudikazioan, eta

b) lagapenak ez badakar ondorio legez merkatuaren lehiaren egiazko murrizketa bat.

SPKLren 214. artikuluaren b) letraren 2. apartatuan ezartzen dena gorabehera, ezingo da baimendu hirugarren bati lagapena egitea, horrek kontratistaren ezaugarrien funtsezko aldaketak eragiten baditu eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak baldin badira.

Baldintza-agiri honen karatulak aurreikusten badu adjudikaziodun suertatzen diren lizitatzaileek sozietate bat eratuko dutela beren-beregi kontratua exekutatzeko, posible izango da sozietate horren partaidetzak lagatzea, karatulan ezartzen diren kontrol-mekanismoei jarraituz, halakoak ezarri badira. Partaidetzon lagapenak aldaketa bat badakar berekin kontratistaren kontrolean, kontratu-lagapenarekin berdindurik geldituko da partaidetza-lagapena baimetzeari dagokionez, "Kontratuak lagatzea" apartatuan aurreikusten denarekin bat.

11.1.2.- Betekizunak.

Kontratistak bere eskubide eta betebeharrak hirugarrenei laga ahal izateko, baldintza-agiri honen karatulan aipatzen diren betekizunez gainera, ondoren zehaztuko diren gutxieneko betekizunak eskatuko dira:

a) Kontratazio-organoak berariaz eta aldez aurretik eman behar du lagapena egiteko baimena. Baimen hori behean aipatuko diren letretako betekizunak betez gero emango da. Bi hilabeteko epea izango da baimen-eskaerari buruzko ebazpenaren jakinarazpena egiteko, eta, behin epea igarota, administrazio-isiltasunez emandakotzat jo beharko da.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren 100eko 20 gutxienez exekutaturik izan behar du. Betekizun hori ez da aplikatzekoa izango, baldin eta kontratista konkurtsoan dagoela gertatzen bada lagapena, nahiz eta likidazio-fasea irekita egon, edo konkurtsoa deklaratzeko eskumena duen epaitegiari jakinarazi abiatuak dituela negoziazioak birfinantzaketa-hitzarmen bat lortzeko edo hitzarmen-proposamen aurreratu baten aldeko atxikimenduak lortzeko, konkurtso-legerian aurreikusitako eran.

c) Lagatzaileak Bizkaiko Foru Aldundiarekin kontratatzeko gaitasuna izan behar du, bai eta kontratuaren exekuzio-fasearen arabera eska dakiokeen kaudimena ere, eta ezingo du izan kontratatzeko ezein debekurik.

d) Adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatu behar da.

11.1.3.- Eskubideetan eta betebeharretan subrogatzea.

Lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztien subrogazioa jasoko du lagapen-hartzaileak.

11.2. Azpikontratazioa.

11.2.1. Azpikontratu ahal izatea.

